

# GUaiXe.eus



**Racing San Migel**  
Futsalsakanako txapelduna



Kirolak >> 20

Sakanangelditu dira Nafarroako Herri Kirol Jolasetako **hiru txapela**: bat **Iñigo Aritzarendako** eta bi **Andra Mariarendako**



Kirolak >> 20

## Kontua euskaraz egitea da



>>> 11-18



**Sakanako Mankomunitateak 3,65 milioiko aurrekontua du**

>>> 5



**Irurtzungo osasun etxean gizarte laguntzailea lanean hasi da**

>>> 3



**Okela sormen lantegia, beharrizanetik Urrestarazuk sortua**

>>> 23

**GUaiXe.eus**

**Apirilaren 12ra arte oporretan gaude**



# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • zorion@guaixe.net  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

MARTXOAN  
%5 EKO  
DESKONTUA

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



## apiribilak

# 2-16

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

### Olatz Arregi Martin

ZORIONAK terremoto!! Bagaude 2an!! 8 urte betetzen dituzu!! Ea prestatzen diguzun merienda goxoa, eh! Mila muxu, Intza, aita eta ama.



### Itsaso Aldaz Herrero

Gure Etxeko txikiena! Muxu asko. Ama, aita eta Oihanen partez.



### Itsaso Aldaz Herrero

Zorionak gure etxeko printzesari. Muxu handi bat. Zure Urdaingo familiaren eta Oskiren partez.



Asier Gartzandia ZORIONAK Asier zure 20. urtebetetzean zure Arbizuko lehengusuen parteti.

### Musika

**Pixontxis, Sutan, Neke Politikoa, Txorroskilo, Ahuntzape eta Pornox.** Apirilaren 3an, ostiralean, Irurtzunen. **Gazte Martxa.**

**The Freetangas.** Apirilaren 3an, ostiralean, 23:00etan Urdaingo Kaluxa tabernan.

**Cantan 2 la Polla.** Apirilaren 3an, ostiralean, 23:30ean Olatzagutiko Clinker tabernan.

### Dantza

**Geltokia.** Apirilaren 11n, larunbatean, 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Aukeran dantza konpainia.

### Erakusketak

**Igarotako udazkenak.** Apirilaren 3rik 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Kiki Asensio eta Adela Sanchez.**

**Gure Esku Dagoren giza katea.** Apirilaren 6tik 19ra Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

### Zinema

**50 sombras de Grey.** Apirilaren 3an, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 5ean, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

**El libro de la vida.** Apirilaren 5ean, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortian.

**Perdiendo el norte.** Apirilaren 9an, ostegunean, 19:00etan; apirilaren 10ean, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 12an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Ikuslearen eguna Iortian, 3 euro.

**Perdiendo el norte.** Apirilaren 9an, ostegunean, 19:00etan



**El francotirador.** Apirilaren 16an, ostegunean, 19:00etan



**Pim & Pom.** Apirilaren 12an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Mendi irteerak

**Hiru mendizerrak.** Apirilaren 11n, larunbatean, Altsasun. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

### Bizikleta irteerak

**Altsasu-Argomaniz-Altsasu.** Apirilaren 4an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko kultur gune paretik. 79 km. **Zikloturista taldea.**

**Apotako gaina.** Apirilaren 5ean, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 43 km. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

**Altsasu-Muskiz-Altsasu.** Apirilaren 11n, larunbatean, 9:30ean Altsasuko kultur gune paretik. 89 km. **Zikloturista taldea.**

**Arantzazuko santutegia.** Apirilaren 11n, domekan, 8:00etan Altsasuko Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldearen bajeratik. 37 km.

### Irteerak

**Haritzira bisita gidatua.** Apirilaren 11n, larunbatean, 11:00etatik 13:00etara Etxarri Aranazko Danbolintxulotik abiatuta.

### Hitzaldiak

**Octubre de 1934 en Euskal Herria.** Apirilaren 10ean, ostiralean, 19:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. Hitzlariak: R Garai, J Gutu eta J Chueca.

### Tailerrak

**Buztinezko eskulanak.** Apirilaren 3, ostiralean eta apirilaren 4an, larunbatean, 17:00etatik aurrera Intxostiapunta.

**Taloak.** Apirilaren 7an, asteartean, 17:00etatik aurrera Intxostiapuntan.

**Sökole, afrikar dantza eta perkusioa.** Apirilaren 11n, larunbatean, 17:00etatik aurrera Intxostiapuntan.

**Munduko sukaldaritzak.** Apirilaren 12an, domekan, 17:00etatik aurrera Intxostiapuntan.

### Bestelakoak

**Gazte Martxa.** Apirilaren 3an, ostiralean, Irurtzunen. Ikus 8. orria.

**Zorri azoka, merkatu soziala.** Apirilaren 5ean, igandean, 11:30etik 14:30era Etxarri Aranazko estalopean.

### Deialdiak

**Hipotekek kaltetutako Plataforma.** Apirilaren 3an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Apirilaren 3an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Apirilaren 5ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Errepublikarrei omenaldia.** Apirilaren 14an, asteartean, Altsasun.

## Korrikako selfie sakandarra

Norberak bere buruari argazkia ateratzea eskatzen du selfieak. Hori dela eta kolorez argitaratzen duguna da saritua. Eskerrik asko parte hartu duzuen guzti!



## &gt;&gt; Olatzagutia

# Gizonezkoen eta emakumezkoen artean berdintasuna lortzeko lanean ari da Olazti

Berdintasun Plana beharrezkotzat jo du Olaztiko Udalak etorkizunean esku-hartzeak definitu ahal izateko. Azken urteotako joerak aztertu dituzte eta genero berdintasuna lortzeko neurriak hartzeko beharra ondorioztatu

Maialen Huarte Arano

Berdintasun Departamenturik ez izateak eta alorra landuko duen langile espezializatuen faltak zaildu egiten du Berdintasunaren gaian sakontzea. Horixe da Olaztiko Udalak azken urteotan landu duen azterketaren ondorioetako bat. Herrian emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortze aldera lanean ari da udala. Muga eta gabezia batzuk badirela jakinarazi du. Berdintasun alorra bere osotasunean eta modu espezifikoan lantzeko aditurik ez dago eta orain arte gaia zeharka baino ez da landu. Etorkizunean gaia landu eta indartze aldera Berdintasun Plana egitea proposa dela uste du udalak. Horretarako diru partida espezifiko bideratzea eta langile tekniko espezializatuak bideratzea proposatu luke.

Udalaren baitan Berdintasun

narekiko sentsibilitatea handia da batzuen eta besteen artean. Eurek ere gaia sakonago aztertzea egokitzen jo du udalak egindako diagnostikoak. Herritarrei begira, biztanleria orekatua dago generoari dagokionez: %48,3 dira emakumezkoak, hau da 766, eta %51,7 gizonezkoak, 819 alegia. Adinari erreparatuta Nafarroako datu orokorrekin alderatuta Olaztiko biztanleria adinduagoa da: emakumezkoen artean %23,4 65 urtetik gorakoa da. Gainera adina kontuan hartuta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldea handia da: 20 eta 65 urteen artean gehien goa da gizonezkoa.

Olaztikez du herritar kopuruan aldaketa bat-batekorik jasan, alderantziz, herritarren joan-etorria denboran motela eta irregularra izan da. 1981. urtean 2.010 olaztiar ziren, gaur egun 1.585 bizilagun dira. Etorkinei dagokionez, %13,1 dira kanpotik etorritakoak, hau da, 218 lagun 23 herrialdeetatik etorritakoak. Horietatik %50,5 dira emakumezkoak eta gehienak gazteak dira, 20 eta 50 urte bitartekoak.

## Familia ereduak aldatu egin dira herrian

Olaztiarren ia erdia dago ezkondua %48,9. Emakumeen artean %38,6 ezkongai da eta gizonezkoen artean %49,1. Herrian azken hamarkadetan familia ereduak anitzak dira: lehenago senar-emaz-



Neska-mutil olaztiarrak inauteritan zortzikoa dantzatzeko prest.

te izandakoek bikotekide berrie-kin berrekiten diote, sexu bereko bikoteek sortu dira, guraso bakarreko familiak, izatezko bikoteak, ezkontza zibilaren bidez sortutako bikoteak eta haur gutxiko familiak dira nagusi.

Haurrak izateko adina ere aldatu egin da azken hamarkadetan. Orain adinez zaharrago erabakitzen dute baita olaztiarrek ere seme edo alababatzitea. 1996. urtean lehen haurra 30 eta 34 urte bitarteko bikoteek izaten zituzten, 2011n 34-39 urte bitartean izaten dute lehena. Nabarmenezko beste datu bat ere azaleratu du udalak egindako diagnostikoak. Asko dira 15 eta 19 urte arteko gazteen haurdunaldiak %10. 1996. urtean zifra hori txikiagoa zen %7koa. Kasu horietako zenbaitetan haurdunaldia ez da aurretik pentsa-

tutakoa izan, hortaz, nerabezeroan eta gazte garaian sexualitatea landu eta hezkuntzan hobeki tratatzeko beharra ere badela antzeman du.

## Genero indarkeriak ez du hildakorik eragin

2011 eta 2012. urteak izan dira latzenak genero indarkeria kasuetan. Urte bakoitzeko seina salaketa izan dira. Ohartarazi dute gai honekin lotuta, jarritako salaketetan ez dela jarraipen berezirik egin. Izan ere, 2012 eta 2013. urteen artean kasu bakar batean artatu da emakumearenganako indarkeria kasua. Hortaz, Olaztiko udalak nabarmendu du gizarte zerbitzuak gutxi ari direla gai horretan babes ematen. Horrek eragin negatiboa izan dezake, lehen arretea ez zaielako egoki

ematen emakumei. Dena dela diagnostikoak jasoz duela genero indarkeriak eragindako hildakorik izan herrian.

## Datu positiboak ere badira

Udalak naturaltasunez erabiltzen du hizkuntza modu inklusiboan. Olaztiko erakundeek helarazten eta erabiltzen dituzten dokumentu guztietan berdintasunez hitz egiten da emakume eta gizonezkoen. Oinarrizko pausoak eman ditu udalak berdintasuna lortze aldera. Erronka jarri dio bere buruari orain: Berdintasun Plana egin eta lantalde espezializatu jartzea horretarako. Dena dela, herritarren parte-hartzea ere ezinbestekotzat jo du udalak. Modu horretan lortu ahal izanen delakoan Planik osoena.

## &gt;&gt; Arakil / Irurtzun

# Hasi da gizarte-langilea osasun etxean lanean

Osasun arloko gizarte langileek osasun sisteman artatutako pertsoez eta haien familiak arduratzen da; gaixotasunak eta bere baldintzak bizitzan nola eragiten dien aztertu eta oreka berrezartzeko modua opatzen lan egiten du

Pasa den asteazkenaz geroztik Irurtzongo osasun etxean gizarte langilea dago lanean. Nafarroako Gobernuak berriki sortu du lanpostua, Irurtzunek eta Orkoieneke partekatuko dutena. Hala, Eva Espatolero Ladrero gizarte langilea astelehen, asteazken eta ostiralean Irurtzongo osasun etxean egoten da eta beste bi astegunetan Orkoiengoan. Eskaearen arabera Irurtzongo osasun eskualdeko herrietara ere joanen da gizarte langilea. Gizarte Zerbitzuen Man-



Irurtzundarrak osasun etxera sartzen.

komunitatearekin elkarlanean ari-tuko da.

Gizarte langileak herritarrak

Irurtzongo osasun etxeko lehen solairuan hartuko ditu, astearte eta ostegunetan emagina egoten den

bulego berean. Harekin hitzordua nahi duenak 948 507 005 telefonora hots egin edo Irurtzongo osasun etxeko harrerara jo beharko du.

## 30 urte postua betetzeko

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Osasun Zonifikazio Foru Legea 1985 urtean onartu zuen. Irurtzongo oinarrizko osasun eskualdeak Itza (lau herri), Imotz,

Larraun, Lekunberri, Araitz, Betelu eta Sakana (Arakildik Arruazura) hartzen ditu; 8.345 biztanle guztira. Gobernuak legeak ezarritako gizarte-langile ratioak betetzen ez zituelako Nafarroako Gizarte-Lanean Diplomatu eta Gizarte-Laguntzaileen Elkar-go Ofizialak epaitegiatar jo zuen eta epaitegiak lastailean arrazoia eman zien.

## Zerbitzua

Hainbat dira osasun arloko gizarte langileak eskaintzen dituen zerbitzuak. Alde batetik informazio eta tramitazioari dagozkionak leudeke: dependentsia edo ezgaitasun balorazio eskaerak, gurpildun aulki, makulu, ibilgailu eta beselakoak erosteko diru-laguntzak, pensio ez kontributiboak, adinduendako bainuetxe eta opor eskaintzak, farmazia gastuari

buruzko argibideak, etxeko lanetarako edo zainketa lanetarako prest dauden pertsonen lan pol-tsa, etxeko langileak gizarte asegurantzian alta edo baja ematea, ezgaitasun legalak, tutelak, osasun txartelak (bertakoak eta Europakoa), helduen hezkuntza, adinduendako baliabideen argibideak, doako laguntza juridikorako eskaera, familia bitartekaritza, ...



Lourdes Ganboa Gartzandia

astekoa

## Norberaren urtaroak

Askotan pentsatzen dut naturak bere urtaroak dituen bezala, guk ere antzekoak ditugula. Gure bizitzan egun onak ditugu, garai goxoak, eguzki ederreko egunak bezala; baina baita egun grisak ere. Halakoetan, egun triste, luze ilun horietan, mendialdera jasotzen ditut begiak. Bertan, argi ikusten da negu gogorrenaren atzetik ere,

beti datorrela udaberria eta ondoren uda. Egia da gure inguru honetan uda motzak ditugula baina aldaketak ez du hutsik egiten. Izango dira fruitu gutxiagoko urteak, baina fruituak iritsiko dira. Eta ez dugu ahaztu behar uda partean gaudenean ere, epeltasun goxo eta argi ederrean, neguko egunak etorriko direla.

Horregatik iruditzen zait ez nukeela gustuko izanen Kanariar irletan bizitzea, paisaia beti antzeratsu badago, nola antzeman aldaketak? Eta paisaia ez bada aldatzen, aldatzen al dira pertsonak? Aukeran, gure aldaketak nahiago, askotan bortitzak badira ere.

Klimak eragina duela pertsonengan esaten da eta nik hala-

xe pentsatzen dut. Gure eguraldi petrala, gogor samar honi aurre egiteko gai izan behar dugu guk. Beste toki batzuetan berriz, klimatologiak bizitza erritmo motelagoa eramatera bultzatzen du.

Bukatzeko, aitortuko dizuet aurtengo gure negua luze izaten ari den bezala, nire barrukoa ere halaxe izaten ari da.

Artikulutxo hau idaztea ere sekulakoa kostatu zait. Lehen esan bezala, mendira bota beharko dut begirada, zuhaitzetan kimuak udaberria iragartzen ari direla ikusi eta prestatzen joan nire barruko udaberriko.

Lourdes Ganboa Gartzandia

## hara zer dien

# Chrysallis-Euskal Herria

Hilabete honetan Chrysallis-Euskal Herria elkarte sortu da. Elkarte hau haur transexualen familiek osatzen dute eta errealitatea hau gizarteratzea dute helburu.

Transexualitatea urte askotan gaixotasun moduan hartu izan da. Gaur egun zorionez ez da horrela ulertzen, baina hala eta guztiz ere, transexualitatea ez da gehiegi ezagutzen.

Zer da neska eta mutil izatea? Transexualitateak galdera honi

erreparatzea ekarri du, eta honi erantzuterakoan gure izate sexuala hobeto ulertzeko giltzarriak aurkitu ditzakegu.

Sexologiak aspaldi erakutsi zuen neska eta mutil izatea faktore askok edo sexuazio prozesu ezberdinek osatzen duten gertaera bat dela. Horrela, jaiotzez genitalekin lotu izan den errealitatea, askoz konplexuagoa dela badakigu. Hau da, genitalen arabera neska eta mutilak ezberdinu izan dira, baina hau ez da sailka-

penegokia sexuazio prozesuaren elementu asko kanpoan uzten dituelako. Arestian aipatu den moduan, neska eta mutil izatea elementu ugariz osatuta dago (kromosomak, genitalak, hormonak, bigarren mailako karakter sexualak, hirugarren mailako karakter sexualak edo ezaugarri kulturalak, eta garuneko sexuazioa – norbera sentitzen dena) hauek guztiak bizitzan zehar gure neska edo mutil izatea osatzen joango dira, sentituko garen muti-

la eta neska eraikiz.

Honek erakusten digu askotan genitalen arabera neska edo mutil bezala sexuatu duten pertsona batek sentitzen duena ez datorrela bat genitalak adierazten dutenarekin. Hau da, bere sexuazioko beste elementuak, garuneko sexuazioa edo norbera sentitzen duena genitalak adierazten duten kontrako agertzen duela. Horrela, argi esan behar dugu zakila duten neskak, eta bulba duten mutilak daudela.

Ezagutzak, informazioa egokia edukitzeak errealitateari begiratzeko betaurreko zabalagoak eraikitzen laguntzen digu, eta honela ikuspegi binarioa (txuribeltza, kasu honetan arrosa-urdira) apurtuz ikuspegi irekiagoa eraikiz, gure alboan ditugun errealitateak hobeto ezagutu eta ulertzeko.

Olatz Berastegi, Lilima taldea

## barrutik kanpora

# Hipotekeek kaltetuendako aholkuak

Ordaintzeari utzi behar badiozu edo egin berri baduzu eta ez zaitzu komunikazio judiziala iritsi?

- Kontu bat ireki banku edo aurrezki kutxa hipoteka ez den beste batean

- Sarrerak eta zure familiaren gastuak kontu berrira aldatu

- Hipotekeek Kaltetutako Pertsonen Plataformako kide baten laguntzaz bankuari zailtasunen berri eman idatziz, negoziatzeko eskatuz.

Bermatzaileak dituzu?

- Dituzun zailtasunen berri eman eta azaldu ordainketa eskatuz bankuaren jakinarazpena jaso dezaketela.

- Bermea ematen dizuten bankuak kontuak badituzte zuk egindako gauza bera egin dezatela: beste banku batean kontua zabaldu, helbideratzeak eta sarrerak aldatu, baita planak eta eperako libretak eta beste ere.

**Komunikazio judiziala jaso duzu?**

- Hipotekeek Kaltetutako Pertsonen Plataformarekin harremanetan jarri eta doako justizia laguntza eskatu.

- Gehiegizko klausulak baliogabetzeko agiriak prestatu.

**Zure etxea enkantean jarri da?**

Aurreko bera. Gainera, bankuarekin alokairu soziala negoziatu, baita zorraren barkatzea ere.

**Oharraren aurretik?**

Hipotekeek Kaltetutako Pertsonen Plataformarekin eta Oina-

rrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin harremanetan jarri, oharra atzeratzeko eskatuz.

**Oharraren ondoren?**

- Hipotekeek Kaltetutako Pertsonen Plataformarekin eta Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatera jo alokairu sozialeko etxebizitza eta gelditzen den zorraren barkatzea eskatzeko.

**Intereseko loturak:** <http://pahnavarra.org/contacto> [\[tadosporlahipoteka.com/\]\(http://tadosporlahipoteka.com/\)](http://afec-</a></p>
</div>
<div data-bbox=)

**Sakanako plataformaren hurrengo bilera:** apirilaren 3an, 18:00etan, Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

**Hipotekeek Kaltetutako Pertsonen Plataforma**

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.net](mailto:guaixe@guaixe.net)  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • [kirolak@guaixe.net](mailto:kirolak@guaixe.net)  
**MAKETATZAILEA:** Amaia Amilibia eta Olatz Aldasoro  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitatea@guaixe.net](mailto:publizitatea@guaixe.net)  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.net](mailto:publi@guaixe.net)  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano  
**ZUZENTZAILEA:** Patxi Flores  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • [bierrik@guaixe.net](mailto:bierrik@guaixe.net)  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • [argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**Mank**  
 s a k a n a

**BAZKIDEAK** 

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## SAKANA

# Mank-ek zerbitzuak mantentzeko aurrekontua onartu du

Sakanako Mankomunitateak (Mank) 3.655.765,30 euroko aurrekontua onartu zuen joan den ostegunean egindako bilkuran. Pasa den urtean baino 153.895,52 euro gehiago kudeatuko ditu aurten ibarreko erakundeak. Igoera horren barruan daude, besteak beste, Mank-ek kontu-hartzailea plaza bete izana eta aurten idazkari postua beteko duela.

Aurrekontuak egiterakoan kontuan izan diren irizpideak zein izan diren galdetuta Mank-eko presidente Aitor Karasatorre Muguruzak esan digu: "zerbitzuak mantentzea eta udalen egoera ikusita ordaintzen duten kuota manten-

tzea izan da helburua. Horretarako, diru-sail guztiak errepasatu ditugu, gastuak optimizatzeko. Gasolioa, argiteria, kreditua eta beste begiratu ditugu".

## Inbertsioak

Kopuru handiena Ur Zerbitzuaren bidez egingen da; guztira 153.100 euro. Haietatik 43.100 euro kontagailuak berritzera bideratuko dira. Beste 42.000 euro ur biltegi eta goiko hornidura sareko azpiegiturarako. Beheko hornidura sarerako 60.000 euro izanen ditu Mank-ek eta informatika sistemarako 8.000 euro izanen dira.

Bestalde, Arbizuko hondakin-



Aurreko batzar bat.

degian zenbait berrikuntza egin behar dira eta horietarako 9.000 euro aurrekusi ditu Mank-ek. Azkenik, zerbitzu orokorretan, bulegoko altzarietarako eta informatika sistematarako 1000 eta 6000 euro bideratu dira hurrenez hurren.

## Valorg programa

Europako programa horretan Belgika, Eslovakia, Frantzia eta Txipreko parte-hartzaileekin batera ari da Sakana. Ibarra ordezkatu proiektu horretan Mank-ek aparte, Sakanako Garapen Agentzia, Vermican, Kerabi eta Nafarroako Unibertsitate

Publikoa daude.

Hondakinen bilketari eta kudeaketari lotutako enplegu sortzea aurreikusten dute makina bat erakundeek. Hala izan dadin merkatuaren eta lanean ari diren enpresekin izan daitezkeen sinergien inguruko azterketa zehatza behar da. Programaren bidez Sakanan konpostatze planta bat jartzeko bideragarritasun azterketa egingen da. Bestetik, hondakinen kudeaketa eta birziklatzea enpresen clusterra martxan jarri nahi da. Azkenik, auzo-konpostaren hobetzea eta sustapenerako programa abiarazi nahi da.

Mank-ek programa aurrera ateratzeko 30.000 euroko ekarpena egin du. Horri Europako Bataunaren 150.000 euro gehitu behar zaizkio. Programa heldu den urteko garagarriera arte luzatuko da.

## Etxarri Aranatz

### Utzubar Txikiko lanak



Hilabete inguru da Utzubar Txikiko lanak hasi direla. Ura, gasa eta argindar sareak, espaloia eta zoladura berriak egingen dira ikastolaren eraikin berrira, futbol zelaira eta hilerrira eramateko. Eskola pareraino egingen da urbanizazioa. Utzubar Txiki edo heziketa eta kirol gunearen 1. faseko urbanizazioa HNV, S.A. eta Obrum CIBi enpresak ari dira egiten eta haien truke 152.960 euro jasoko dute.

## Aldapasoroko lanak aurrekontuan jasoak

**Etxarri Aranazko Udalak aurten 2.552.402,9 euro kudeatuko ditu, joan den urtean baino 833.753,72 gehiago**

Utzubar Txikiko urbanizazio lanek baldintzatu dute aurtengo aurrekontua. Eneka Maiz zinegotziak azaldu digunez, "aurrekontuaren puska handia hartzen du eta markatu egin du. Hala ere, ez da murrizketarik izan". Maizek nabarmendu kultura, festa, herriko taldeei diru-laguntzak (13.500 euro), Mank-eko, UEMA-ko (7.323 euro) edota Udalbiltzako diru-sailak (3.000 euro) mantendu egin direla.

Berrikuntzak ere badira. Orain arte haien umeak Danbolintxulo haur eskolara eramaten zuten gurasoek diru-laguntza jaso zezaketan (9.000 euro). Aurten aukera bera izanen dute Kattuka zentroa eramaten dituzten gurasoek ere (2.000 euro). Bestalde, Etxarri

Aranazko generoen arteko aukera berdintasuna bermatzeko diru-saila onartu du (3.000 euro). Haren bidez aholkularitza eta tratu txarren inguruan langintza egingen du udalak. Energia aurrezteko, udalak argiteria monitorizatzeke asmoa du ere.

## Aldapasoroko lanak

Utzubar Txikin hasitako lanak ez dira Etxarrin aurten egingen diren bakarrak. Aldapasoro auzoko sareak eta zoladura berri behar dira. Lanak 2011 urtean egitekoak ziren baina Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza faltagatik atzeratu egin ziren. Lan horietarako 841.631,6 euro bideratuko dira. Udalak gobernuaren 535.730,55 euroko diru-laguntza espero du. Bestalde, auzokideek kontribuzio berezien bidez 214.894,49 euroko ekarpena egingen dutela aurrekusi du udalak ere.

## Aplikazioa

Herrian farola matxuratuak, koxkak edo zuloak kalean, ur ihesak edo bestelakoak izan daitezke. Orain arte haien berri emateko udaletxera joan edo hara deitu behar zen. Maizek jakinarazi digunez, udalak adimen-dun telefonoendako aplikazio bat martxan jarriko du eta haren bidez etxarrirek udala gaztigatu ahal izanen dute.

## Diru sailak

Festak	72.000
Gizarte	
Zerbitzuak	68.109,02
Kultura programazioa	46.000
Musika eskola	33.000
Frontoia	26.521,11
Baso	
hobekuntzak	22.926,08
Antzoki sarea	14.000
Cederna Garalur	11.555,57
Fusilatuen	
DNA probak	2.500

## Album ilustratu bat sortzeko tailerra

Tailergileak: Yolanda Arrieta eta Aitziber Alonso


Apirilak 24, ostirala. 18:00etatik 20:00etara Ziordiko liburutegia

• 6-10 urte bitarteko haurrentako (LH1-4)

• Izen-ematea Ziordiko liburutegian (hilaren 17ra arte)  
(948 468 970 | ziordialib@cederna.es)

Antolatzailea: **Mank**  
s a k a n a

Laguntzailea: **ZIORDIKO LIBURUTEGIA**



**SAKANA**

# Euskara hutsezko udalekutarako diru-laguntza deialdia egin du Mank-ek

**Eskuorriak**

Euskara Zerbitzuak LHko eta DBHko D ereduko ikasleei uda honetarako antolatu diren euskarazko udalekuei buruzko informazioa jasotzen duen eskuorriak banatu dizkie.

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak haur eta gaztetxo-en artean gure hizkuntzaren erabilera bermatzen duten udalekuei egonaldiengatik diru-laguntzak emanen ditu. Aurtengo udan euskara hutsezko udalekuan 5 eta 15 egun artean emanen duten haur eta gaztetxo-en gurasoek eska ditzakete diru-laguntza horiek. Mank-ek horretarako 5.000 euroko diru-saila du bideratuta. Gehienez ere gastuaren erdia ordainduko du Mank-ek.

Gurasoek euren eskabideak egiteko irailaren 30era arte egi-



Uharteko neskatok irristatzen. ARTXIBOA

teko aukera izanen dute. Eskabi-dearekin batera honako agiriak aurkeztu behar dira: udalekuan egondako haur edo gaztearen tutorearen nortasun agiria; haurren edo gaztearen erroldatze agi-

ria, antzinasuna adierazita; udalekuari buruzko ezaugarriak (iraupena, hizkuntza, egitaraua); udalekuko asistentzia egiaztagiria eta gastu osoa ordaindu izanaren ordainagiria.

**SAKANA****Bandera eske**

Sakanako hainbat udalek Espainia-ko, Nafarroako eta herriko bandera jartzeko eskatuz Gobernuaren Ordezkaritzaren gutuna jaso dute. Ikurren Legea betearazi nahi dute. Arruazuko Udalak eskaera horri helegitea jarri dio. Izan ere, udaletxea goi mailako babes duen erai-kin gisa katalogatua dago eta fatxada ezin da ezertarako ukitu. Iturmendin ez zegoen banderak jartzeko ohiturarik udaletxean, festan edo egun berezietan ez bada. Gaia aztertzean martxoaren 16an udalak bilkura berezia egin zuen. Iturmendiko Udalak bando bidez banderak jartzearen kontra zegoela adierazi zien herritarrei, eta legea "inposatzailea eta antidemokratikoa" dela salatu zuen. Banderak jartzeko epea despiditzen zen egunean, martxoaren 19an, jarri zituen. Gainera, ikurrinaren aldeko ekitaldia antolatu zuten: aurrekua dantzatu zitzaion eta elkarteetan zintzilikatu zen. Auza-rea ere izan zuten. Bestetik, Urdiainen duela pare bat aste jarri zituzten banderak. Erantzungisa, urdiaindarrek herrian barna hainbat ikurrina zintzilikatu dituzte. + [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**Lakuntza****Lakuntzar bat lan istripuan hila**

Noingo enpresa batean izan zuen lan istripua larunbatean. Asteartean agurtu zuten

Larunbat eguerdian izandako lan istripuaren ondorioz, J.M.A.R. hil ginen, 49 urte zituela. Autogintzarako osagaiak egiten dituen Noingo enpresa bateko langilea zen. Nafarroako Gobernuak zabaldu zuenez, buruan metalezko pieza baten kolpea hartu zuen. Noingo osasunetxeko mediku taldeak artatu zuen, baina Nafarroako Ospitale Gunean garun heriotza zuela iritsi zen. Igan-dean hil zen.

**SAKANA****Aste Santuko elizkizunak Aralarko santutegian**

Aralarko Deun Mikel Kofradiak jakinarazi duenez, Aste Santua dela eta gaurtik igandera arte elizkizunak izanen dira Aralarko santutegian. Ostegun eta Ostiral Santuan, 16:00etan, izanen da meza. Larunbat Santuan, berriz, 20:00etan. Pazko Egunean, igandean, 12:30ean meza nagusia izanen da. Egun berean, Aralarko ainguruaren irudiak bere herri herriko ibilbideari ekinen dio. 16:30ean santutegitik Baraibarrea abiatuko da. Aurretik bi orduko mendi ibilbidea izanen dute hura laguntzen duten fededun guztiek.

**SAKANA**

## Jendea erakarri zuen energia aurrezteari buruzko foroak

Be Up elkarteak antolatuta Eragin, energia aurrezteko foroak, egin zen ostiralean eta larunbatean. Elkar-tea osatzen duten ekintzaileak pozik daude izandako erantzunarekin. "Gure elkartearen berri emateko balio

izan zuen eta, gainera, energiaren aurrezteari buruzko hitzaldi interesgarriak izan ziren". Jendeak foroari emandion erantzunarekin ere kontentu daude Be Up elkarteko ekintzaileak.

**SAKANA**

## Jende ugari stock azokan

Larunbata eta igandean egin da I. Sakanako stock azoka. Estreinakoa Altsasuko Burunda pilotalekuan izan zen. 17 establezimendutako 23 standetan sakandarrek, eta ibarrekoak ez ziren bisitariak ere, denetarik produktuak prezio onean opatzeko aukera izan zuten. Jende asko izan zen, baina salmentak ez horren beste. Antolatzaileek esan digutenez zenbait establezimenduk pozik bukatu zuten asteburua, beste batzuek ez horren beste. Azoka dinamizatzailea denez eta herrian jarduera sortzen duenez, azokarekin aurrera jarraituko dutela azaldu dute antolatzaileek.

**Olatzagutia****Gaztetxeak 20 urteurrenerako jaialdia antolatu du**

Maiatzaren 9an izanen da, 18:00etatik, aurrera. Sarrerak hainbat tokitan daude salgai

Gazte olatzietatik 1995eko maiatzaren 10ean okupatu zuten egun Mai-sua gaztetxea dena. 20. urteurrena ospatzeko Olatzagutiko Gazte Asanbladak jaialdia antolatzea erabaki du. "Gaztetxe zoragarri hau izatea lortu dugu eta honekin laguntza handia eta txikia eskaini duten guztiei eskertu nahi diegu". Urteurren ospakizunean Gozategi, Behin Betiko, Hesian eta Arkada Social taldeak ariko dira. Haien emandien artean Ludovaina talde galiziarra izanen da. Sarrerak Iruñean (Herriko), Agurain (Herriko), Beasain (Arrano), Lakuntzan (Sorginak), Arbizu (Karrika), Etxarri Aranatzen (Leku Ona), Altsasu (Biltoki) eta Olatzagutian (Clinker eta Erburua) daude salgai.

**SAKANA**

## Sakandarren arteko lekuko aldaketa Nafarroako ikastolen zuzendaritzan

Nafarroako Ikastolen Elkartearen zuzendari aldaketa izan zen martxoaren bigarren astean: Pello Mariñelarena etxarriarrak Josu Reparaz arbizuarrari pasa zion lekukoa. Aurrenak 18 urte eman ditu Nafarroako 15 ikastolen zuzendari gisa. Osasun makalaldiagatik kargua uztea eskatu zuen eta ikastolek Reparaz aukeratu dute bere ordeko gisa. Arbizuarrak 29 urte eman ditu Lizarrako ikastolan eta gaur egun ikastolako zuzendaria da. Reparaz ikasturtea despiditu arte bi kargutan izanen da.

**URBASA**  
ABENTURA

Mendigaraia 32, Larraona  
info@urbasaabentura.com  
www.urbasaabentura.com  
677 264 559 - 610 431 999

Aste Santuan  
zabalik  
Bizi abentura!



## » Iturmendi



Hainbat iturmendiar elkartu ziren lana ikustera.

## 13 elkarrizketa, 27 memoria-ordu, 974 oroitzapen

«Joan den mendean kintoek jarzen zuten Maitza». «Arropa garbiketan errautsak lixibaren lana egiten zuten. Garbitu eta gero zelaian jarzen ziren luze-luze arropak lehortzen. Azuletek eta belarraren berdeak kolore berezia ematen zion arropari». «Santa Marinako erromerian sueltoan dantzatzeko eta jaitsieran Dantzalarren geldiuena egiten zen». «Lehen ez ziren loteak ematen, lan-tegietan soberan gelditutako egurra zen ematen zena». Horrelako informazio eta oroitzapen asko eta asko Iturmendiko 13 elkarrizketatuen ahotik ezagutzeko parada izan zen Labrit Ondareak aurkeztu zuen dokumentalaren ekitaldian. 18 minutuko aurrerapen

bat eskaini zuten.

Larunbat arratsaldean jendez gainezka bete zen udaletxearen ganboikoa, Navarchivo.com proiektuaren barnean Iturmendin egindako Ondare Ez-Materialaren Bilketako bigarren txandan jasotako lekukotasuna ezagutzera. Gazteek etazarrek begi honez hartu zuten bideo-lana. Labrit Ondareko ordezkariak eta Iturmendiko alkateak banan-banan eskertu zituzten bideoan parte hartu duten 13 elkarrizketatuak eta bakoitzari bideo bana eskaini zioten.

### sarean ikusgai

<https://vimeo.com/channels/navarchivo/123197645>

## » Altsasu

## Festak irailaren 11 hasiko dira

**Data aldaketaren aldekoek ezezkoek baino 217 boto gehiago eskuratu dituzte. Duela sei urte baino parte hartze txikiagoa izan da (289 boto gutxiago). Maiatzerako hasiko da festen batzordea egitaraua prestatzen**

Festen datari buruzko herri galdeketa egin da gaur eta altsasuarrek festak irailaren 11n, ostira-lean, hastea erabaki dute. 16 urte-tik gorako 6.393 altsasuarrek zuten boza emateko aukera (%23,26) eta 1.487k erabili dute. Haietatik 840k (%56,49) baiezkoa eman diote Ados zaude Altsasuko festek beti irailaren 14a eta asteburu bat (ostirala, larunbata eta igandea) hartze-arekin? galderari. Ezezkoak 623 (%41,9) izan dira. Baliogabeak 14 (%0,94) eta txuriak 10 (%0,67) izan dira. 2009an egindako galdeketa 1776 boto izan ziren (%27); ezezkoak 1.436 eta baiezkoak 332.

### Balorazioa

Unai Hualdek alkate ohiak garrantzia eman zion herriak Festen Batzordearen ideia berresteari. Hualdek gogora ekarri zuen 2009ko galdeketa: “beti esan dut agian ez zela egokia izan festak aldatzea eta gero galdeketa egitea. Aurten azaltzen saiatu eta festen aurretik galdetu dugu. Orain herriaren baimena badugu, badi-rudi arrazoiak ulertu direla”.



Altsasuarrek lau mahaitan botoa emateko aukera izan zuten.

Juan Carlos Orellanak Parte-hartze Batzordeko buruak gogorarazi zuen batzordean gehien-go data aldatzearen aldekoa zela. “Gaia azaltzen saiatu beharra zegoela uste genuen. Argudioak emateko batzarra egitea gakoa izan da”. Eraitza ikusita Orellanak gaineratu zuen: “badi-rudi hasi dela ulertzen. Zeren festak antolatzen dituzten eragileek haiek antolatzeko kriston zailtasunak dituztela esaten dute. Hori beste gako bat izan dela uste dut”.

Orellanak parte hartze prozesuari berari erreparatu zion. “Halako formatuek merezi dute, asko. Parte hartze formatu batean asmatu dugula uste dut. Garrantzitsuena da ulertu dugula denon artean eredu parte-hartzailea bat sortu behar genuela”. Hualdek

ere prozesua “aberasgarria” izan dela azpimarratu zuen: “denbora-rekin hartu da, arrazoiak ematen saiatu da, jendeak ulertu ditu. Aurrekoan festak aldatuak zeuden eta gertu. Orain jendeak ez ditu hain gertu ikusten edo”.

### Egutegia

Hemendik aurrera Altsasuko festek asteburua (ostiraletik domekara) eta irailaren 14a izanen dute barne. Aurten irailaren 11n hasi eta 15ean despedituko dira. Hurrengourteetan hauek izanen dira festen datak: 2016an 14tik 18ra; 2017an 13tik 17ra; 2018an 13tik 17ra; 2019an 13tik 17ra; 2020an 11tik 15era eta 2021ean 10etik 14ra.

taberna  
ALTSASU  
EZEA

ENTZALADAK,  
OGITARTEKOAK  
PLATERAK  
PLATERTXOAK

IREKIERA BERRIA OSTEGUNEAN, APIRILAREN 2an 19:00etan

674 988 390  
948 563 970

## &gt;&gt; Irurtzun / Arakil



Gazte Martxako antolatzaileak aurkezpenean.

## Irurtzunek Gazte Martxa hartuko du bihar

Lekunberri eta Berriozar lotuko dituen mendi martxa antolatu dute Aitzina eta Ernai gazte antolakundeak. Herria mugarri, gazteok martxan! leloa du martxak. Ostiralean abiatuko dira Lekunberritik eta aurreneko etapa Irurtzunen despedituko dute. Makina bat ekitaldi eta kontzerturen ondoren, larunbatean gazteak Berriozarrerako bidea egingen dute. Martxa igandean Iruñean despedituko da, Aberri Egunean.

Mendi Martxarekin antolatzaileek gazteek euren "esperientziak elkartrukatzeko eta harremantzeko aukera" emana hildute: "geurezka eta nahien inguruan hitzegin eta pertsona askez osatutako Euskal Herri aske baterako bideari ekitea".

### Egitaraua

>> **Apirilak 3, ostirala 10:00etan** Harrera ekitaldia eta martxaren hasiera. Latasan bazkaria (zeinek berea eraman behar du. Irurtzuna iritsi eta akanpatu.

### Hitzaldi eta tailerrak

- Independentziaren inguruko mahaingurua nazioarteko ordezkartzekin.
- Prozesu eratzailera Euskal Herrian: autogestioaren dimentsio berriak.
- Goxatu goxotasunetik.

### Kultur eskaintza

Uluka taldearen kontzertua. Bertso olinpiadak. Gazte Oihua gazte taldeen kontzertu maratona: Pixontxis, Sutan, Neke Politikoa, Txorroskilo, Ahuntzape eta Pornox. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## &gt;&gt; Altsasu

## Goazen Altsasuren abal bilketa

Goazen Altsasu hautes-elkarteak hauteskundera aurkezteko 100 sinadura jaso behar ditu

Podemos Altsasu Ahal Dugu zirkuluak sustatu du Goazen Altsasu hautes-elkartea, maiatzaren 24ko udal-hauteskundeetara aurkezteko. Horretarako, Altsasun errolatuta dauden 100 pertsonaren abalakedo sinadurak behar dituzte. Ekimena lagundu nahi duenak udaletxeko idazkariaren aurrean eman behar dugu sinadura horiek eta nortasun agiria erakutsita. Sinadurak emateko epea astelehenean zabaldu da eta apirilaren 17ra arte luzatuko da. 11:00etatik 13:00etara pasa beharko dira interesatuak udaletxetik. Apirilaren 8an eta 15ean 17:00etatik 19:00etara sinatzeko aukera izanen da ere.



## SAKANA

## Launa sakandar EHBilduren eta Geroa Bairen Parlamentuko zerrendetan



Larunbatean aurkeztu zuten **EHBilduk** Nafarroako Parlamentuko hauteskundeetarako aurkeztuko duen zerrenda.

Adolfo Araiz buru duen zerrendan lau sakandar daude: Asun Fernandez Garaialde Lazkano 6. postuan dago, Esther Korres 8., Garazi Urretarazu 40. eta Jose Migel Ondarra 49. Aurreneko biak Araizen lan taldean daude azaroaz geroztik.

### Asteartearen Geroa Baik

Nafarroako Parlamenturako hauteskunde zerrenda aurkeztu zuten. Koalizioaren lehendakari gaia Uxue Barkos izanen da. Berarekin batera zerrendan lau sakandar daude: Unai Hualde 4. postuan dago, Maider Goñi 15., Ruben Goñi 32. eta Javier Ollo 37. Hualde lehendakari zarako hautagaitzan Barkos laguntzen duen zortzikoteko kide da



## &gt;&gt; Ziordia

## Aierdi udal taldearekin, herriarekin zerikusia duten ekimenez

Ziordiko Udaleko alkatetzako taldeak Geroa Baik parlamentariak herriarekin erakutsitako interesa eskertu dio

Ziordiko alkatetzako taldea eta Manu Aierdi Geroa Baik parlamentariak astelehenean elkartu ziren. Legegintzaldi honetan Aierdik Nafarroako Parlamentura Ziordirekin zerikusia duten ekimenez aritu ziren. Horien artean dago Nafarroa Arabarekin lotzen duen bigarren mailako errepidearen konponketa. Jesus Arrese alkateak gogora ekarri zuen lotura eskaera urteetako aldarrikapena izan dela. "Aierdik aurkeztutako mozioari esker toki errepideari jarraipena eman zaio. Gure herriarendako berebiziko garrantzia zuen gaia zen". Txirringularen segurtasuna ere nabarmendu du alkateak. Bestalde, alkatetzako taldekoek parlamentariari esker ona azaldu zioten. Arresek hala eskatuta, Lazaro Echeverria enpresaren greba bideratzeko "Aierdik lortu zuen enpresako zuzendaritzaren eta langileria-aren arteko liskarra konpontzeko Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegu Departamentuak esku har zezala".





## SAKANA

# Zazpi ikastetxe publikoren gabeziak salatu dituzte

Nafarroako Gobernuari hezkuntza publikoaren aldeko apustua egiteko eskatu diote, aurrekontua handituz eta lehentasuna eredu publikoari emanaz

Herrikoa guraso elkarten federazioak eta Sortzenek pasa den asteazkenean hezkuntza publiko-ko ikastetxeen egoerari buruzko txostena aurkeztu zuten. Nafarroako 231 ikastetxeetatik 50etan gabeziak daudela azaldu zuten erakundeetako ordezkariak. Pasa den urtean baino 20 zentro gehiago daude zerrendan. Herrikoa eta Sortzeneko kideen iritziz horrek argi uzten du "hezkuntzaren publikoaren kalitatea ez dela Hezkuntza Departamentuaren lehentasuna. Krisiarekin murriztu diren baliabideak hezkuntza pribatu-kontzertuari mesede egiteko erabiltzen du".

Hezkuntzako bi eragileek alderdiei eskatu zieten "hezkuntza azpiegitura publikoak populazio tamainari eta hazkunde aurreikuspenei egokitzeko" legeak egin

## Zerrendatutako arazoak

**BIURDANA INSTITUTUA.** Dereduan ikasten duten Arakilgo ikasleak hartzen ditu Iruñeko institutuak. Ikasle masifikazioagatik guraso elkarteak aspaldi Iruñea iparralderako institutu berri bat eskatzen ari dira. Kirol pista estalia estali dute. Irurtzongo Udalak, bestalde, herrian DBHko ikasleak hartzeko ikastetxea egiteko lursaila gordea du.



**LUIS FUENTES ESKOLA.** Lakuntzako ikastetxeak gela handiagoak behar ditu eta patioangune estali bat.



**ARBIZUKO ESKOLA.** Geletako bat erdibitza falta da. Eskola jangela jartzeko aukera.



**SAN DONATO ESKOLA.** Etxarri Aranazko ikastetxean azpiegituren egoera kaxkarra eta frontoiaren mantentze falta.



**URDIAINGO ESKOLA.** Haur Hezkuntzako gela bat falta da eta psikomotrizitaterako beste bat falta da.



**ZELANDI ESKOLA.** Patioangune estali bat eta patioiko zorua hobetzea behar du Altsasuko ikastetxeak.



**ARALARKO MIKEL DONEA INSTITUTUA.** Altsasuko institutuan edukiera handiagoko ekitaldi gela behar du. IK Tetako ekipamendua eguneratzeko premia du.



ditzatela. Ikastetxe bakoitzean jangela, liburutegia, estalitako patioa, ekitaldi aretoa, irakasle gela, bikoizketetarako gelak eta espezia-

litateetako gelak egotea eskatu zuten. Gogora ekarri dute legean ez dela hezkuntza dotazio gisa hartzen ez jangela ezta patio esta-

lia ere. Legea aldatzea eskatu zuten: "mantentzeaz udalek arduratu behar badute, baina, aldi berean, aurrekontua murrizten

bada...". Bestalde, federazioek hezkuntza azpiegituren ebaluazioan eta inbertsioak non egin zehazterakoan parte hartzea eskatu zuten.

## guaixe.iragarkilaburrak.com

### NORBANAKOEN IRAGARKIAK

#### LAN ESKARIA

Etxeko lanak, garbiketak, haurrak zaindu...  
Hots egin 699 17 19 38

#### ETXEBIZITZAK SALGAI

Etxarri Aranatzeko Malkorramendi kalean pisua saltzeko premia dugu. AUKERA EZIN HOBEA!! Deitu 690 396 192 telefonora.

#### ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Pisua alokatzen da Lakuntzan. Gela bakarrek apartamentua, erdigunean. Altzariak eta bitzetako beharrezkoak diren elementu guztiak jantzi-ta. 300 € hilabeteko errenta. Interesatuak 678 83 03 71 telefonora deitu.

#### IKASTAROAK

Sendabelarren ikastaroa Etxarri Aranatzen. Apirilaren 18tik ekainaren 13ra. Larunbata goizean 10:00-14:00. 50 €. Izena eman kultura bulegoan astelehenera ostiralera 9:00-13:00, 948 46 09 30, kulturaetxarriaranatz.com, www.etxarriaranatz.com, apirilaren 13ra arte.

**Plaza libreak zumba ikastaroan!!** Zumba egin nahi baduzu apuntatu zaitez Altsasuko Intxostiapunta Gaztegunean izango den zumba ikastarora, astearte eta ostiralean, 18:00etatik 19:00ak arte. Prezioa 25 €. Apuntatu zaitez!! Informazio gehiago 948 56 47 85.

#### LEHIAKETA

**Haur literaturako Mikel Zarate lehiaketa.** Lezamako udalak eta Elkar argitaletxeak, 6 eta 12 urte bitarteko haurren irakurkari berriak sortu

eta idazleen lana bultzatzeko asmoz antolatu dute lehiaketa. Lanak hartzeko azken eguna apirilaren 30a izanen da. Argibideak deitzaleen web orrietan.

**Erromantzatuen koloreak.** Nafarroako ekialdeko eskualdeko pintura lehiaketa antolatu da. Maiatzaren 25era arte aurkeztu daitezke lanak. Informazioa [www.restauranteromanzado.com](http://www.restauranteromanzado.com)

#### OHARRAK

**Album ilustratuen tailerretako izen ematea zabalik.** Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak album ilustratua sortzeko tailerra antolatu du. 6 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Apirilaren 24an, ostiralez, 18:00etatik 20:00etara izanen da, Ziordiko liburutegian. Izen ematea apirilaren 17ra arte egon da zabalik Ziordiko liburutegian bertan, 948 46 89 70 edo [ziordialib@cederna.es](mailto:ziordialib@cederna.es)

**"Behi euskaldun baten memoriak".** Etxarri Aranazko irakurle taldea liburu horren inguruan hizketatuko da apirilaren 30ean, ostegunean, 19:00etan liburutegian.

**Arakildik sagardotegira.** Arakilgo Udalak apirilaren 11rako Hernaniko Itxasburu sagardotegira irteera antolatu du, bazkaltzera. Sagardotegi eta barazkijaleendako menuak aukeran. Izen ematea martxoaren 25era arte izanen da zabalik. Horretarako, udalxetxetik pasa edo 948 50 01 01 edo [info@arakil.net](mailto:info@arakil.net)-era idatzi.

**Tartalariendako laguntza.** Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daiteke.

### HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

**Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.** Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasozen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora.

**Bertso-udalekuak.** Euskal Herri osoko haur eta gazteek parte hartu dezakete bertso-udalekue-tan. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatzen ditu. Informazio guztia: <http://www.bertsozale.eus/eu/bertso-udalekuak>.

#### JAIOTZAK

- **Antonia Cristina Florescu,** martxoaren 19an Iturmendin
- **Xabier Reka Oraa,** martxoaren 22an Altsasun
- **Hodei Mendoza Obregozo,** martxoaren 24an Altsasun
- **Olaia Perez Goikoetxea,** martxoaren 25ean Iturmendin

#### HERIOTZAK

- **Francisca Mozo Lunch,** martxoaren 24an Unanun
- **Juana Lakuntza Lizarraga,** martxoaren 24an Lizarragan
- **Jose Luis Morcillo Larraza,** martxoaren 26an Olaztin
- **Migel Gonzalez Mugika** ziordiarra martxoaren 28an Altsasun

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

## SAKANA

## Presoen eskubideen aldeko manifestazioak atxikimenduak biltzen jarraitzen du

**Sarek deituta apirilaren 18an manifestazioa egingen da Etxarri Aranatzen**

Sakanako Sare dinamika herritar-rrak apirilaren 18an presoen eskubideen aldeko manifestazioa deitu du Etxarri Aranatzen. Mobilizazioarekin 3 aldarrikapen egin nahi dituzte: "euskal preso politikoei eta haien senideei eta lagunei aplikatzen zaien dispertsio politika krudelarekin amaitzea, gaixo dauden preso eta iheslarien berehalako etxeratzea, eta, azkenik, giza eskubideak, konponbidea, bakea".

### Atxikimenduak nora

Manifestazio horri atxikimendua emateko dinamika kanpainak aurrera jarraitzen du. Atxikimendua eman nahi duten Sakanako eragile eta norbanakoek [sakanasare@gmail.com](mailto:sakanasare@gmail.com) e-posta helbidera zuzendu daitezke. Sakanako Saretik jakinarazi digutenez, dagoeneko hainbat dira atxikimendua azaldu dutenak.

### Gerturatzeko eskaerak atzera

Euskal Preso Politikoen Kolektiboko 50 kide inguruk azaroan kexua helarazi zuten Auzitegi Nazionalera, preso sakabanaketarekin bukatzea eskatzeko. Espai-



niako Auzitegi Nazionaleko Espe-txe Zaintzarako epaile Maria de los Reyes Jimeno Gutierrezek ezetz erantzun du, ez duela presoen sakabanaketa bukatzeko urratsik emango. Erabaki hori Espe-txe Zaintzari ez dagokiola dio Jimenok. Jimenok adierazi duenez, berari presoen eskubideak bermatzea dagokio, eta sakabanatuta dituzten presoek ez zaiela eskubiderik urratzen gaineratu du epaileak. Presoek salatutako urraketa bakoitzari zehazki erantzun gabe ebatzi du hori epaileak, kexuen sakoneran sartu gabe.



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 564 355**  
**679 160 116**  
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

[www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)



**Francisco Garcia Uribe**

Zure iribarrea eta maitasuna dira gure bizia.

**Zure lankideak eta lagunak**



**Jose Luis Morcillo Larraza**

Agurtzeko aukerarik izan gabe joan zara Jose Luis, baina zure ontasuna beti izango dugu bidelagun.

**Altsasuko lagunak**



**Oroigarriak egiten ditugu**

**Nahi duzun argazki eta testuarekin**

**GUIAIXE**  
KOMUNIKAZIOA

948 564 275  
Foru plaza 23-1  
Altsasu  
[argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)



**Jose Luis Morcillo Larraza**

Eskerrik asko osaba, pertsona ona izatea zer den erakutsi diguzu.

**Zure ilobak**



**Jose Luis Morcillo Larraza**

Zure iribarrea eta maitasuna dira gure bizia.

**Zure kintoak**



**Juan Miguel Arregi Razkin**

Zure barre handia gure alaitasunaren argia.

**Razkin lehengusuak**



**Iosu Murgiondo Murgiondo**

Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

**Etxekoak**



**Pako Goikoetxea Ollaquindia** jauna

Tolosan hil zen 2015eko martxoaren 31n 85 urte zituela

**Bere arrebak, ilobak, lehengusuak, lagunak eta gainerako senideek:**

Ezinezkoa egiten zaienez galera honen ondoren jaso dituzten afektu frogan anitzak banan-banan eskertzea, lerro hauen bitartez bere esker ona luzatu nahi dute. Mila esker!

Urdiain, 2015eko apirilaren 2a

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



**Bidali mezua**  
**zorion@guaixe.net-era**  
**edo hots egin**  
**948 564 275 telefonora**



GRUPO  
Funeraria  
**VASCONGADA**  
Ehorzketak  
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

24 ORDUZ: **943 106 222** • **943 376 980**



**BELEIXEKO ESATARIAK JO ETA SU IBILI ZIREN GAU OSOAN ZEHAR. KILOMETROZ KILOMETRO KORRIKAREN JARRAIPENA EGIN ZUTEN GUAIXEKO LANTALDEAREKIN BATERA.**

**SAKANDARREK HARRERA BEROA EGIN ZIOTEN 19. KORRIKARI. MOZORRO, MUSIKA, LELO, ALDARRIKAPEN ETA ARRAZOEIEZ BETERIK LASTERKAN IBILI ZIREN SAKANAKO EUSKAHALDUNAK. ZORIONAK!**



Eurne eta Aitor korrikalariak animatzen.



Lekukoaren distira.



**KORRIKAKO FURGONETA:** Argazki kamara eskubian, telefonoa ezkerrean eta bi-deo-kamarari eusteko beste esku baten faltan Guaixeko kazetari Alfredo. Bere ondoan Aitor Irigoien inspirazio momentu batean. Atzean, antolakuntzako kideak.

**Korrikako argazkiak: 3 €**

eska itzazu: [bierrik@guaixe.net](mailto:bierrik@guaixe.net) edo 948 562 275 telefonoan





2066. km Errotzen.



2068. km Irurtzungo Udala.



2069. km Orritz dantza taldea.



2071. km Pikuxar.



2070. km Aizpea euskaltzaleen topagunea.



2071. km Pikuxar.



2072. km Atakondoa, Irurtzungo eskola publikoa.



2073A. km Etxarrengo Kontzejua.



2073B. km Iratxo elkarte.



2074A. Urritzolako Kontzejua.



2074B. km Larrazpi gazte elkartea.



2075. km Arakilgo Udala.



2076. km Sakanako Mankomunitatea.



2077. km Hiriberriko Kontzejua.



2078. km Etxarriko Gazte Asanblada.



2080. km Irañetako Udala.




2081. km Irañetako euskara taldea.



2082B. km Itsasi euskaltegia.



2082A. km Hartzabal elkartea.



2082A. km Hartzabal elkartea.



2083. km Aralar Mendi elkarte.



2084. km Uharteko Arakilgo Udala.



2085. km Sakanako Herri Eskolak.



2085. km Sakanako Herri Eskolak.



2086. km Ramos-eko langileak.



2087. km Arruazuko Udala.



Lakuntzako koadrila bat zain.



Lakuntzarrak zain.



2088. km Lakuntzako Pertza eta Biltoki.



2089. km Lakuntzako Udala.



2090. km Sakana Kooperatiba.



2091. km Argibidea elkarte.



2092. km Arbizuko Udala.



# KORRIKA 19

EUSKAHALDUN!



2093. km Aldabide elkartea.



2094. km Lizarragabengoako Kontzejua.



2095. km Jeingenekoa.



2096. km Andra Mari ikastolako irakasleak.



2097. km Karrikestu elkartea.



2098. km San Donato eskola publikoa.



2099. km Etxarriko Udala.



2100. km Andra Mari ikastolako ikasleak.



2101. km Andra Mari ikastolako gurasoak.



2102. km Larrañeta elkartea.




2103. km Guerra Anaiakeko langileak.




Javier Eseberri egindako lore eskaintza.



Bakaikuarra korrikaren zain.



2104. km Bakaikuko Udala.



2105. km Bakaikuko Bakarrekotxea.



2107. km Iturmendiko Udala eta Aritzaga elkartea.



2106. km Bakaikuko Gazte Asanblada.



2108. km Aitzkozar elkartea.



2109. km urdindarrak.



2110. km Magotteaux.



2111. km Urdiaingo Udala.



2112. km Viscofaneko langileak.





2113. km Urdaingo elkarteak.



2114. km Magotteauxeko langileak.



Goian AGAko gazteak zain, behean, ikastolakoak.



2115. km Altsasuko Gazte Asanblada.



2116. km Iñigo Aritza ikastola.



Zelandi eskola publikoko korrikalariak Korrika iristeko zain.



2117. km Zelandi eskola publikoa.



2118. km Altsasuko Udala.



2119. km Mikel Donea institutuko ikasleak.



2120. km Guerra Anaiakeko langileak.



2121. km Altsasuko Koop.



2122. km Sunsundeguiko langileak.



2123. km Olaztiko euskara taldea.



2124. km Olaztiko Udala.



2125. km Olaztiko Gazte Asanblada.



2126. km Ziordiko elkartea eta ZGA.



2127. km Ziordiko Udala.



2128. km Iñigo Aritza ikastolako langileak.



2129A. km Altsasuko koadrila.



2129B. km Bierrik Fundazioa.

**BIDEOAK:** Aurten, lehenengo aldiz, Korrikako bideoak egin ditugu, Korrikaren jarraipenean beste aurrerapausu bat emanez. Hurrengo edizioetarako azpiegiturak hobetzen saiatuko gara, ibilbide gehiena estaltzen saiatzeko.

Korrikako bideoak, informazioa eta argazki gehiago  
**www.guaixe.eus**  
 web orrian

**OHARRA:** Beti bezala, kilometro guztietako irudiak hartzen saiatu gara baina ezinezkoa izan da, baliabide teknikoak, Korrika furgoneta aldaketak, Belexeko zuzeneko kronikak, iluntasuna, abiadura, mugimendua, giza baliabideak... direla medio.



Eginoko sarrera.



Sakana Asparrenari lekukoa pasatzen.

**BAGARA NOR!** Agur Korrika, hurren arte!

Duatloia

**Maiza eta Mintegi Arbizuko Haur Duatloian txapeldun**

Larunbat goizean Arbizuko III. Haur Duatloia jokatu zen. 125 neska-mutikok parte hartu zuten, tartean makina bat sakandarrek. Haurren mailan nesken proba Leire Maizak irabazi zuen eta mutilena Iker Mintegik. Unai Villalobos 2.a izan zen eta Mikel Arretxe 3.a. Kimuetan Nahia Imaz 7.a izan zen eta Ander Villalobos 8.a. Benjaminean Hasier Baztarrika 7.a sailkatu zen, Ekain Razkin 8.a, Atikilt Arretxe 9.a, Anartz Garcia 11.a, Oier Arretxe 12.a eta Ailetz Arretxe 16.a. Eta aurrebenjaminean mutilen lasterketa Ekain Imazek irabazi zuen. Alain Razkin 4.a izan zen. Nesketan Ane Berastegi 2.a iritsi zen helmugara eta Haizea Urbe 6.a.

**ALTSASUKO DUATLOIA**

Nafarroako Triatloi Federazioak Altsasuko Haur Duatloiko klasifikazioa publikatu du. Aurrebenjamineko lasterketa Ekain Imazek irabazi zuen eta benjaminean Egoi Lakuntza 2.a izan zen. Kimuetan mutiletan Ander Villalobos 5.a sailkatu zen eta Xabier Borrega 10.a, eta nesketan Nahia Imaz 8.a. Bukatzeko, haurren mailan mutilen proban Unai Villalobos izan zen txapelduna Iker Mintegiren aurretik, eta nesketan Leire Maiza 4.a sailkatu zen.

**Motoziklismoa**



**Buelta bikaina**

**Juan Mari Olias Espainiako Abiadura Txapelketako Albaceteko proban Superstock 1000 mailan 12.a sailkatu zen**

Juan Mari Olias pilotu irurtzundarra 2010ean aritu zen Espainiako Abiadura Txapelketan, Stock 600 mailan. Baina babeslerik gabe geratu zen eta maila hori utzi behar izan zuen. Orain, babesle berria lortu duenez, TID enpresa, Espainiako Abiadura Txapelketara bueltatu da. Txapelketa asteburuan hasi zen, Albaceten. Olias (Kawasaki, Olias Racing Team) Superstock 1000 mailan lehiatu zen, beste 39 piloturekin batera. Helburua txapelketari egokitzea, erritmoa hartzea eta gainontzeko pilotuak ezagutzea zen. Enrique Ferrerrek irabazi zuen proba (23:20). Erdiko postuetan sailkatzea espero zuen irurtzundarrak eta helburua gainditu du, lehendabiziko lasterketan 13.a sailkatu zelako (24:14) eta bigarrenen 12.a (24:06), denbora hobetuz. Txapelketako hurrengo lasterketa maiatzaren 31n jokatu du, Jerez.

Duatloia

**Arnaizen eta Casaresen Arbizu**

Sakandarrak Arbizuko 19. Duatloian

**Proba luzea**

- 1. Beñat Arnaiz: 1:36:07
- 8. Sergio Garcia de Eulate: 1:44:14
- 18. Felix Benjumea: 1:46:25
- 41. Mikel Astiz: 1:51:31
- 87. Jose Ignazio Mikeo: 2:01:16
- 96. Juantxo Zelaia: 2:03:21

**Proba herrikoia eta kadeteena**

- 1. Isidro Asurabarrena: 53:10
- 3. Fermin Azkargorta: 58:54
- 4. Iñigo Razkin: 57:26

\*Oharra: Federazioak ez du duatleten jaioterriko daturik eman eta gerta daiteke sakandarren bat ez agertzea.

Larunbatean 160 duatletak hartu zuten irteera Arbizuko 19. Duatloian. Proba Euskal Herriko Zirkuiturako eta Nafarroako Txapelketarako baliagarria zen. Aurten, ohiko probaz gain (8 km korrikan, 32 km bizikletan eta 4 km korrikan), proba herrikoia antolatu zuten, proba nagusiaren distantzia erdia zuena (4 km korrikan, 16 km bizikletan eta 2 km korrikan). Duatleta gehienak, 133, proba nagusian aritu ziren, baina distantzia erdia osatu zuten proba herrikoia irenautu zuten 10 duatletak. Izena eman zuten 16 kadeteek ere distantzia erdia osatu zuten. Bestalde, aurten binaka erreleboka aritzeko aukera zegoen eta bikote batek egin zuen hautua.

Eguraldi goxoarekin hasi zen proba, baina eguzkia estali zenean hotza eta haizea nagusitu ziren. Antxintxika taldeko Beñat Arnaizek hasieratik aurrea hartu zuen. 34 urteko aretxabaldarrak sekulako erakustaldia eman zuen (1:36:07), 3 minutu luze pasa atera baitzizkion Patxi Urizarri (1:40:43). Adur Eskisabelek osatu zuen podiuma (1:41:57). Emakumezkoetan lehia estua izan zuten Altsasuko Duatloia irabaztetik zeterren Ana Casaresek eta Lourdes Oizartabalek, baina azkenean Casaresek alde atera zuen eta bakarrik iritsi zen helmugara

**Sakandarrek eman zutena**



Sakandarren artean Sergio Garcia de Eulate izan zen onena. Altsasuarra 8.a iritsi zen helmugara (1:44:14). Felix Benjumea izan zen bigarren sakandarra, helmugara 18. postuan iritsi eta gero (1:46:25). "Beti bezala gogorra izan da, baina eguraldia ona izan da eta gustura. Espero nuen akaso zerbait hobeki ibiltzea baina denboraldi hasiera da eta ez gara kexatuko" adierazi zuen Benjumeak. Aurten Saltoki Trikideak taldearekin ariko da altsasuarra. "Aurreko urtean triatloi luzeagoak egiten hasi nintzen. Saltokikoek halako probetan hartzen dute parte eta pentsatu nuen eurekin aritzea, nire marxa bera duten taldekideak izateko eta probetara norekin joan eta beste izateko. Aurten bereziki igeriketa ari naiz entrenatzen. Proba laburrago hauek luzeagoak entrenatzeko erabiliko ditut. Aurten hiru erdi ironman egin nahi ditut, hori da nire erronka. Apirillean Katalunian erdi iron bat egingo dut eta maiatzaren 16an Iruñean beste erdi iron bat" adierazi zigun triatletak. Bestalde, Sakana Triatloi Taldeko Javier Borrega deskalifikatu zuten, materiala abandonatzeagatik, eta Mikel Lakuntza arbizuarra ere deskalifikatu zuten, bi txartel hori ikusteagatik.

(1:52:36). Bi minutu pasara sartu zen Lourdes Oizartabalek (1:54:46) eta Leire Etxezarreta izan zen hirugarrena (1:58:55)

Beñat Arnaiz lau aldiz aritu da Arbizun baina larunbatean bere lehen garaipena lortu zuen bertan. "Oso fuerte nago, eta hasieratik tiratu egin dut. Lehen sektorean abantaila atera dut eta gero abantaila hori mantentzen saiatu naiz. Lizarragako portua igotzerakoan haizeak bizkarretik jotzen zuen eta nahiko errez igotzen zen, baina jaitzieran aurpegiz kontra jotzen zuen haizeak, eta gogorra egin da. Proba hau oso polita da, zerbait espeziala dauka, asko gustatzen zait Nafarroan gaudelako eta euskararen alorra lantzen delako. Ahal dudan guztietan etortzen saiatzen naiz" adierazi zigun Arnaizek proba bukaeran.

Ana Casares ere pozik zegoen. "Ongi iritsi naiz, baina nekatuta" adierazi zuen. Casaresek sarritan irabazi du proba eta oso gustukoa du. "Uztaileko Alemaniako Ironma-

nean lehiatzea dut helburu, eta proba hauek entrenamendu bikaina dira" nabarmendu zuen.

**Herrikoian Asurabarrena eta kadeteetan Azkargorta**

Proba herrikoian azkarrena Sakana Triatloi Taldeko Isidro Asurabarrena izan zen (53:10). Hirugarren postuan iritsi zen Fermin Azkargorta (56:54), probako lehen kadetea. Iñigo Razkin arbizuarra laugarrena izan zen (57:26).

**Auzatea eta sariak**

Duatletendako auzate ederra prestatu zuten Aldabide elkarteak. Sari ematean 600 euro banatu zituzten esku dirutan eta baita txapelak, trofeoak eta Arbizuko produktuen loteak. Horretaz gain, hainbat sari zozketatu ziren.

Bestalde, larunbatean Durangoko 8. Duatloia jokatu zen (10 km korrikan, 35 km bizikletan eta 5 km korrikan). Juan Luis Maiza etxarriarra 42.a izan zen (1:55:29), bere kategorian bigarrena.

**BIKAIN GARAJEA, S.A.L.**  
 948 460 037 Arbizu  
 948 468 441 Altsasu

**Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA**

**Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea**

**FLORES S.L.**

Nafarroako berezko txistorrak izan bat du

txistor ekologikoa

Uztarabaz Industrialdea TEL. - FAXA: 948 460 499 480324



**Non erabili**

**ENERITZ ILEAPAINDEGIA**

**ETXARRI ARANATZ**  
 %10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

**IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA**

**ALTSASU**  
 %10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berri proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia fakturaren irakurketa eta analisisa doan.

**EKIN**

**ALTSASU**  
 100€ko erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

**IOSUNE MARAURI**

**ALTSASU**  
 Bakarkako sesioetan %10eko deskontua

**KIKI ARGAZKI DENDA**

**ALTSASU**  
 15x20 cm-ko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

**TANIA ARRAINDEGIA**

**LAKUNTZA**  
 50 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

**LAKUNTZAKO OSTATUA**

**LAKUNTZA**  
 Menuarekin, kafea edo kopa doan.

**ZURE EKO DENDA**

**IRURTZUN**  
 €10eko deskontua kontsulta terapeutikoetan.

**HOTEL OLATZEA**

**ARBIZU**  
 Eguneko menuarekin, kafea doan, menu bereziarekin, txupittoa doan.

**Automobilismoa**

## Javi Goikoetxea primeran Nafarroako Zirkuitua Lur Gaineko Rallyan

Nafarroako Txapelketako kategorian bigarrena izan zen kopilotu olaztiarra

Asteburuan 1. Lur Gaineko Nafarroako Zirkuitua Rallya jokatu da Nafarroan, Espainiako Rally Txapelketarako baliagarria. Iruñean, Arronizen, Los Arcosen eta Muésen jokatu zen aipatu rallya. Autoek 4 eremu osatu behar izan zituzten. Puntakopilotuak eta kopilotuak lehiatu ziren eta probako irabazleak Joan Roma eta Alex Haro izan ziren (Mini Cooper).

Javi Goikoetxea olaztiarrak kopilotu lanak egin zituen Ruben Lapuente pilotuarendako (Renault Clio Sport). Biek lan bikaina egin zuten eta bigarrenak sailkatu ziren Nafarroako Txapelketako kategorian (49:57), Izagirre-Gomez lehenengoetatik (48:37) minutu pasatuta. RAC Kopako kategorian Aitor Fernandez eta Iker Askargorta (Ford Focus) laugarrenak sailkatu ziren (55:14).

**Herri kirolak**

## Andra Mari eta Iñigo Aritza txapeldun

### Hiru txapela Sakanan



Proba konbinatuko kimuen mailan lehia oso estua izan zuten Iñigo Aritzak eta Beriainek baina azkenean txapela Altsasura joan zen ehunetako eskas batzuegatik. Haurren mailan, aldiz, Andra Mari jantzi zuen txapela eta kadeteetan Berriozarrek. Sokatiran, haurren mailan Andra Marirendako izan zen txapela eta kadeteen txapela Berriozarrek joan zen.

**Nafar Herri Kirol Jokoetako finaletan Andra Mari bi txapel lortu zituen eta Iñigo Aritzak bat**

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako txapelketan inoiz baino talde gehiagok hartu du par-

te eta txapelketa oso lehiatua izan da. Iñigo Aritza ikastolatik eta Andra Mari ikastolatik sortutako gure taldeek -Iñigo Aritza, Andra Mari, Leziza, Putterri, Beriain eta Ondatz- maila bikaina eman dute.

Nafarroako Herri Kirol Jolasak 2015

**Proba konbinatua**

**Kimuak**

- 1. Iñigo Aritza: 6:49.68
- 2. Beriain: 6:49.88
- 3. Andra Mari: 6:53
- 4. Araxes: 6:59

**Haurrak**

- 1. Andra Mari: 8:37
- 2. Basaburua: 8:57
- 3. Araxes: 9:09
- 4. Leziza: 10:08

**Kadeteak**

- 1. Berriozar: 10:25
- 2. Basaburua: 10:47
- 3. Andra Mari: 11:04
- 4. Ultzama: 11:37

**Sokatira**

**Haurrak (480 kilo)**

- 1. Andra Mari
- 2. Putterri
- 3. Berriozar
- 4. Iñigo Aritza

**Kadeteak (540 kilo)**

- 1. Berriozar
- 2. Ultzama
- 3. Andra Mari
- 4. Iñigo Aritza
- 5. Araxes

Lau jardunaldiren ondoren talde onenak iritsi ziren igandean jendez lepo zegoen Etxarriko frontoian jokaturako finalerako. Hiru txapela Sakanan geratu dira.

**Areto futbola**

## Racing San Migel, Futsalsakanako garaile

Ostiralean Futsalsakana areto futbol txapelketako final handia jokatu zen Uharteko Arakilen. Bunker talde altsasuarrak eta Racing San Migel talde uharterra parez pare lehiatu ziren. 200 ikusle inguru bildu ziren final lehiatua ikustera.

Hasieratik bukaerara arte iraun zuen emozioak. Lehen zatian, bi kontraerasoetan Xabierrek eta Andonik Bunker 0-2 aurre-

ratu zuten; Racingeko Asierrek 1-2 gerturatzea lortu zuen, baina Bunkerrek Xabierrek gola sartu eta Bunker atsedenaldira aldeko 1-3arekin joan zen.

Bigarren zatian Jose Manuelek sartutako bi golekin hirura berdindu zuen Racingek. Luzapenean Iban Perezek 4-3 aurreratu zuen Racin, baina Bunkerrek ez zuen etsi eta laura berdintzea lortu zuen



Xabier Aiestaranek. Penaltietan erabaki zen txapelduna. Bunkerren hirugarren penaltia geratu zuen Beñatek eta Racing San Mige-

lek lortu zuen Futsalsakana liga irabaztea. Talde horretako Jose Manuel Gorritik lortu zuen ligako pitxitxiaren saria.

**Txirrindularitza**

## Erramu Sariko mendiko saria Etxeberriarendako

Sociedad Deportiva Alsasuak antolatuta, igandean juniorren mailako 56. Erramu Trofeoa jokatu zen (79 km). Huesca la Magia taldeak sekulako erakustaldia eman zuen. Talde honetako Jordi Lopezek irabazi zuen proba, Altsasuk helmugara bakarrik heldu eta gero (2:09:08). 12 segundora Huesca la Magia taldeko Pascua, Galvan eta Jaime sartu ziren, eta atzetik sartu ziren gainontzeko txirrindulariak, tantaka. Burundako Quesos Albeniz taldeko Asier Etxeberria 6.a iritsi zen helmugara, 20 segundora, eta berak eraman zuen Mendiko Saria. Talde bereko Eneko Aramendia 13.a izan zen, 1:5era, Aralarreko Intersport Irabia taldeko Nestor Baroja 31.a, 1:30era, eta haren taldekide Izai Mauleon 49.a, 3:57ra. Huesca la Magiak irabazi zuen taldekako txapelketa.

Bestalde, kadeteek Tafallan mustu zuten Nafarroako egutegia.



Quesos Albenizeko Josu Etxeberria 9.a heldu zen helmugara, Ailetz Lasa 23.a eta Josu Jaka 26.a.

**Rural Kutxak beste bi garaipen** Afizionatuetan Rural Kutxak beste bi garaipen lortu zituen. Asier Unanuek Amorebietako 55. Uda-berri Saria irabazi zuen eta Jonathan Lastrak Gorlako Igoera.

**Mendi lasterketak**

## Sakandarrak topera

**Jose Luis Beraza zazpigarrena izan zen Untzuen, Fran Araña hirugarrena Urnietan eta Beñat Katarain zortzigarrena Saran**

Mendi korrikalari sakandarrak lanpetuta ibili dira asteburuan. Larunbatean II. Hiru Mugak lasterketa jokatu zen Untzuen eta guztira 17 korrikalari sakandar aritu ziren. Proba luzea (20,5 km) 218 korrikalarik osatu zuten eta Xabier Zarranzek irabazi zuen (1:52:12). Zazpigarrena Jose Luis Beraza uharterra izan zen, probako lehen sakandarra eta lehen beteteranoa (1:59:13). Emakume sakandarrak ere lehiatu ziren, proba motzean (15 km), eta proba herrikoian (12 km).

**Urnietan Araña hirugarrena**

Igandean IV. Urnietako mendi lasterketa jokatu zen. 339 korrikalarik ibilbide luzea (21,6 km) hautatu zuten, eta 77 korrikalarik ibilaldi laburra (11,5 km). Ibilbide motzean Lorenzo Galeano izan zen azkarrena (1:05:20). Fran Ara-



Fran Araña hirugarrena izan zen.

ña arbizarra 3.a sailkatu zen (1:09:01). Ibilbide luzeko txapelduna Aritz Egea gipuzkoarra izan zen (1:51:59). Aritz Munarriz 32. postuan sartu zen (2:08:45).

**Katarain Saran ikusgarri**

Igandean Sara Korrika Traila jokatu zen (25 km, 1.443 m desnibel +). 545 korrikalarien artean Oier Ariznabarreta (2:04:43) eta Sarah Dinciaux (2:41:54) izan zen irabazleak. Beñat Katarain lakuntzarra bikain aritu zen eta zortzigarrena izan zen helmugan (2:16:26).

**Futbola**

**FEDERATUTAKO TXAPELKETA**

**PREFERENTE MAILA. 1. multzoa**

27. JARDUNALDIA

**BETI KOZKOR 2 - LAGUN ARTEA 1**  
Garaipena zer den jakin gabe jarraitzen du Lagun Arteak. Igantzik Beti Kozkor aurreratu zuen lehen zatian. Bigarrenean Lekunberrikoak bi jokalarik gutxiagorekin geratu ziren, eta 90. minutuan Laguneko Anderrek berdintzea lortu zuen. Baina falta baten jaurtiketan Beti Kozkorrek garaipenaren gola sartu zuen. Lagun Arteak jaitziera postuetatik 4 puntu eskasera dago.

Sailkapena >>

- 1. Mendi ..... 62 p
- 14. Lagun Artea ..... 24 p

Asteburuko jardunaldia

**LAGUN ARTEA - LAGUNAK**  
(Apirilaren 12an)

**ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa**

27. JARDUNALDIA

**BETI KOZKOR 2 - ETXARRI ARANATZ 3**  
**ALTSASU 1 - AUERRERA 0**  
Jardunaldi borobila Sakanako bi taldeendako. Beti Kozkorren kontra atsedenaldira aldeko 2 golekin joan zen Etxarri. Beti Kozkorrek berdintzea lortu zuen, baina Xabatek garaipenaren gola sartu zuen, penaltiz. Eta Dantzalekun Altsasuk garaipen polita lortu zuen Leitzako Aurrerarekin izandako lehia estua eta entrenigarria. Atsedenaldira baino lehen Javik Altsasu aurreratu zuen. Bigarren zatian Altsasuk ongi defendatu zuen eta garaipenari eutsi egin zion.

Sailkapena >>

- 1. Etxarri Aranatz ..... 62 p
- 9. Altsasu ..... 41 p

Asteburuko jardunaldia

**ETXARRI ARANATZ - UHARTE B**  
**BURLADES - ALTSASU**  
(Apirilaren 12an)

**Areto futbola**

## El Pozok ederki zigortu zuen Magna

El Pozo Murcia ligako oilarrak 2-6 irabazi zion Magna Xotari. Bigarren zatian egindako akatsek kondenatu zuten Magna. Irurtzungo taldea 8.a dasailkapenean (40 puntu). Gaur, ostegunean, Marfil Santa Colomaren kontra jokatu du, Katalunian.

**Sakandarrak II. Hiru Mugak mendi lasterketan**

**Luzea, 20,5 km**

- 1. Xabier Zarranz: 1:52:12
- 7. Jose Luis Beraza: 1:59:13 (lehen beteteranoa)
- 8. Evaristo Noveleta: 2:01:01
- 13. Joxeja Maiza: 2:06:33
- 24. Fidel Jimenez: 2:13:38
- 26. Aritz Ganboa: 2:14:38
- 35. Mikel Iriarte: 2:17:15
- 36. Mikel Satrustegi: 2:17:28
- 67. Aitor Larraza: 2:25:43
- 124. Jose Antonio Salgado: 2:39:07
- 169. David Oroz: 2:50:49
- 185. Asier Leiza: 2:58:10
- 195. Jose Juango: 3:03:33

**Motza, 15 km**

- Motza (15 km)
- 1. Javier Cuadrado: 1:33:50
- 21. Carlos Gerendiain: 1:56:20
- 22. Maite Beregaña: 1:56:21
- 36. Erkuden San Martin: 2:07:14
- Herrikoia (12 km)
- 1. Juan Clemente: 1:14:47
- 36. Marijo Arza: 1:59:06
- 37. Igone Moreno: 1:59:06

**Sakandarrak IV. Urnietako mendi lasterketan**

**21,6 km**

- 1. Aritz Egea: 1:51:59
- 32. Aritz Munarriz: 2:08:45
- 80. Joxeja Maiza: 2:22:05
- 193. Julen Arratibel: 2:44:13
- 203. Adur Maiza: 2:45:45
- 11,5 km**
- 1. Lorenzo Galeano: 1:05:20
- 3. Fran Araña: 1:09:01
- 8. Alatz Agirre: 1:12:39
- 31. Israel Arbizu: 1:24:55
- 32. Joni Araña: 1:24:55

## Pilota

## Txanponaren bi aldeak

## Binakako bigarren finalerdia

**Bengoetxea VI-Untoria / Ezkurdi-Zabaleta** (larunbatean, 17:30ean, Labriten. IaSexta)  
**Berasaluze II-Zubietak / Artola-Albisu** (igandean, 17:00etan Ogetan. ETB1)

**Ezkurdia-Zabaletak aurrerapausu handia eman dute Artola-Albisuri irabazita eta Berasaluze-Zubietak, galdu eta gero, irabaztera behartuta daude**

Binakako finalerdiko lehen jardunaldian txanponaren bi aldeak ezagutu dituzte gure pilotariak.

Larunbatean, Bilbon, Oinatz Bengoetxeak eta Alvaro Untoriak 9tantotan utzi zituzten Pablo Berasaluze eta Aitor Zubietak ez zuten orain arte eskainitako itxurarik eman. Aldiz, Oinatzek sekulako lezioa eman zuen aurreko koadroetan eta Untoriak kantxa bikain babestu zuen. Gainera, errioxarrak Zubietak menpean hartu zuen eta pilota bikainak utzi zituen Oinatzek eskutan, leitzarrak bikain aprobe txatu zituenak. Berak jotako doinuei segika aritu ziren gainontzeak eta 22-9 gailendu ziren leitzarra eta errioxarra. Ez zen Zubietaren eguna izan eta sufrikario latza pasatu zuen etxarriarrak.

Joseba Ezkurdiak eta Jose Javier Zabaletak, aldiz, euren one-

na eman zuten igandean Atano III.ean. Serio aritu ziren, sendo eta indartsu, eta garaipen garrantzitsua lortu zuten Iñaki Artolari eta Jon Anderri 22-16 irabazi baitzieten. Egungo bi atzelari indartsu netakoak lehiatu ziren, Zabaleta eta Albisu. Nahiz eta Albisuk akaso indartsuago jo, Zabaletak hobeto mugitu zuen pilota. Gainera, Ataungo atzelariak akats gehiago egin zituen, eta Zabaleta, aldiz, ziurrago aritu zen. Zortziko berdinketatik aurrera Artola eta Albisu ohi baino akats gehiago egiten hasi ziren, eta Ezkurdiak eta Zabaletak egoera probestu zuten, markagailuan aldea ateratzeko eta partida irabazteko.

## Bigarren finalerdia

Ezkurdiak eta Zabaletak Oinatz Bengoetxea eta Alvaro Untoria izanen dituzte aurkari bigarren finalerdian. Bi bikoak irabaztetik datoz eta bigarren garaipenak finalean egoteko bultzada handia emango lieke. Hortaz, jardunaldiko partida interesgarriena izango da hau, kasik finalean egotea baitago jokoan.

Beste partidari, galtzetik datozen bi bikoak, Berasaluze-Zubietak eta Artola-Albisu lehiatuko dira. Biak irabaztera behartuta daude, aukerak izateko. Hortaz, hil ala biziko partida izanen da hau ere. Ea etxarriarrak jokoan dagoen puntu garrantzitsu hori lortzerik duen.

## Mendia

## Hiru Mendi Zerrak ate joka

Bi aukera: **48 km** eta **26 km**



Mendizaleek bi ibilbideren artean hautatzeko aukera izanen dute: ibilbide handia, 48 km-koa eta 2.700 metroko desnibel metatua duena; eta ibilbide txikia, 26 kilometrokoa eta 1.200 metroko desnibelekoa. Ibilbide laburrak gutxi gorabehera 7-8 orduko lana eskatzen du eta marxa handiaren estimazioa 11 ordutik gorakoa da.

Bi ibilbideak Altsasuko Gure Etxean hasiko dira, 7:00etan. Mendizale guztiak Urdiainera joko dute. Urdiaindik Urbasa-Andiara igoko dira, Portuazpitik, eta aipatu parke naturala zeharkatuko dute, Bargagain eta Gainsolera helduz. Bertatik Ziordia herriraino jaitsiko dira. Ibilbide motza aukeratzen dutenak partzelarietatik barna Altsasura ailegatuko dira, eta, aldiz, ibilbide luzea hautatzen dutenak Kipular igoko dute, gero Orobeko antzinako harrobitik jaisteko. Ondoren, Sorozarreta jaitsi eta segidan Balankaleku eta Intxusburu igoko dituzte. Handik jaitsiko dira, Sarabetik, eta San Pedrotik eta Basoitxitik barna Altsasuko Gure Etxera helduko dira.

Horretaz gain, ur hornidura egongo da beste hainbat tokitan. Zer jan eta zer edan ez da faltako; famatuak egin dira antolatzaileek eskainitako hamaiketakoak. Ibilbide hauek ez dira lehiatzeak, eta hortaz, antolakuntzak ez du sailkapen ofizialik banatuko, baina mendizaleek nahi izanez gero kontroletan hartutako denbora erreferentziak jasotzeko aukera izango dute.

Guztia prestatzeko Altsasuko Mendigoizaleak klubeko kideak

eta boluntarioak ariko dira lanean. Antolatzaileek ibilbidea antolatu ahal izateko euren laguntza eman duten babesle eta laguntzaileei eskerrak eman nahi dizkiete.

## Izena ematea bezperan ere

Aurretik, [www.altsasukomendigoizaleak.com](http://www.altsasukomendigoizaleak.com) web gunean egin behar da (13 euro). Bestela, bezperan, apirilaren 10ean, Gure Etxean, 19:00etatik 21:00etara (16 euro). Probaren egunean bertan ez da inskripziorik eginen.

## Automobilismoa

## Sakanako 4x4 Topaketa atzerakontuan

**Sakana 4x4 taldeak apirilaren 11 eta 12rako antolatu du todoterrenoen kontzentrazio erraldoia**

Todoterrenoek hitzordu garrantzitsua dute, Sakana 4x4 Topaketa antolatu baita apirilaren 11 eta 12rako. Sakana 4x4 taldean zuloz, urez eta lohiez betetako hainbat eremu prestatu ditu Arbizuko industrialdean. Todoterrenoek larunbatean norabide batetik bestera gurutzatu beharko dituzte

eremu horiek, eta igandean, kontrako norabidean.

Sakanako 4x4 Topaketak jendetza biltzen du urtero. Arrakastatsua izaten da, bai parte-hartzaileen aldetik –aurreko urtean 33 todoterreno lehiatu ziren– baita proba jarraitzera biltzen diren ikusleen aldetik ere. Antolakuntzaren esanetan, 2014an topaketa-ko bi egunak kontuan hartuta 3.000 lagun bildu ziren Arbizun.



Iruñeko Txankete izan zen irabazlea eta bigarren postuan sailkatu zen Josu Lizarraga urdiaindarra.

## Ezkurdia: "Gure jokoa egitera aterako gara"



Ezkurdiak, Zabaletak, Bengoetxea VI.ak eta Untoriak asteartean egin zuten material aukeraketa. "Materialarekin kontentu nago. Antzeko materiala da. Akaso, pilotetako batek frontisetik irteera handia dauka, baina esperotakoa" adierazi zuen Ezkurdiak. Arbizuarrek gaineratu zuen finalerdiko lehenabiziko partida jokatu eta gero, lasaiago dagoela. "Irabazi genuen eta sentsazio onak berreskuratu genituen. Baina oso partida zaila dugu aurrez aurre. Bengoetxea erasoan asmatzen ari da eta Untoriak kantxa asko estaltzen du. Gu gure jokoa egiten saiatuko gara: tantoa dominatu eta jokoari abiadura sartu beharko diogu, euren nagusitasuna apurtzeko" gaineratu zuen. Iritzi berekoa zen Zabaleta. "Larunbatean garaipena lortzen badugu finalerako sailkatzeko pausu erraldoia emango genuke. Baina Oinatz bikain dabil, eta Untoria txapelketa handia egiten ari da" nabarmendu zuen etxarrendarrak. Oinatzek sakandarren jokoa goraiatu zuen. "Sekulako potentziala dute eta Labriten oso eroso jokatzen dute, Zabaletak bereziki. Horrela jokatzen dutenean zaila da eurei aurre egitea" adierazi zuen. "Pentsatzen dut ni erasotzen saiatuko direla Ezkurdiak pilota izateko, baina agoantatzen saiatuko naiz eta ea nik ere zerbait goza dezakedan, Oinatzek pilotak hartu ahal izateko" gaineratu zuen Untoriak. Bestalde, atzo aukeratu zuten materiala Berasaluze, Zubietak, Artolak eta Albisuk.



**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

**Berria erosi taldea**



## IORTIAKO ABONUAK SALGAI:

Altsasuko kultur guneko abonuekin, 24 €ren truke, Aukeran dantza taldea, Kalakan, Iortia antzerki tailerra eta film bat ikusteko aukera dago.

## Buruz burukoaren **atean**

Eneko Lazkoz Martinez Nafarroako Bertsolari Txapelketako txapelaren borrokan sartzekotan izan zen

Julio Sotok jantzi du Nafarroako Bertsolari Txapelketako txapela. Larunbatean Elizondon izandako finalean Xabier Terrerosekin neurtu zen Soto. Terreros, Lazkoz, Lazkoz, Terreros. Hortxe-hortxe ibili zen buruz buruko sailkapena. Azkenean, bertsolari etxarriarrak 446,5 punturekin hirugarren postua eskuratu zuen. Orain arte parte hartu lau finalerako posturik onena da podiu-



meko azken koxka (2013an 5.; 2011n 7. eta 2010ean 8.). Finalean emankor aritu ziren zortzi bertso-

lariak eta Elizondoko frontoia betetzen zuten zaleek gogoz babestu zituzten.

## Arraiza taula gainean

Hilaren 14an mustu zuen Atea Teatrok Lasarte-Orian *Zu gabe* antzezlan. Alex Tellok idatzi eta zuzenduko idazlaneko protagonisten paperak Inazio Tolosak eta Anabel Arraizak jokatzeko dituzte. Bikoteak elkar ikusi gabe hogeitau urte eman ditu eta berriro ere aurrez aurre daudela bizitzaz, heriotzaz, familia arteko harremanez, gaztaroko ametsez... hitz egiten dute. Azken batean, bizitzari buruzko gogoeta eskaintzen du obrak. Apirilean bostetan emanen dute lana Gipuzkoan.

Bestalde, Arraizak maiatzean beste obra bat mustuko du: *Ekopatetikobikoa*. Atea Teatrok iraba-



zi du Poltsiko Antzerki Sorkuntza lehiaketa, euskarazko formatu txiki-ko antzerki sorkuntza eta ekoizpena bultzatzeko sortua dena. Obra horretan aktore lakuntzarra, Jabier Rodilekin batera, Alex Telloren komedia bateko protagonista izanen da. Antzezlan Donostia-ko lau tabernetan antzeztuko dute maiatzean.

## Udazkenari bi begirada

**Kiki Asensiok eta Adela Sanchezek «Igarotako udazkenak» erakusketa mustu zuten atzo Altsasuko Iortia kultur gunean. Apirilaren 30era arte izanen da ikusgai, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara**

Argazkilaritzarekiko zaletasunak lotzen ditu Kiki Asensio eta Adela Sanchez. Lehenaren ogibidea ere bada. Zaletasunak bultzatuta, kamara aldean dutela, elkarrekin Urbasan pasiatzen izan dira aurreko hiru udazkenetan. Asensiok paisaiak erretratatzeko gogoko urtaroa du. Sanchezek, berriz, paisaiak landugabea zen eta "eta pinturari dagokionez aukera gehien duena dela uste dut, koloreagatik,

testurengatik..."

Aurretik elkarrekin erakusketarik egin gabeak ziren. Baina Sanchezek beste erakusketa bat egin nahi zuen. Bigarren udazkenean hasi ziren gaia aipatzen eta inpresio euskarri berriak probatzeko nahia bazuten ere. Argazkiak egin zituzten. Koadrorako eta argazkirako aukerak zituztenak zituzten. Aukeratu egin zituzten, ez da errepikapenik, eta erakusketarako prestatu dute.

### Sormenez

Haren arabera, "argazkilaritzak beste ikuspegi bat ematen dizu". Sanchezek azken urtea eman du pintatzen. Detaileak, panorami-



kak... eraman ditu mihisera hainbat teknika erabiliz: akrilikoak, olioak, mistoak, alkoholarekin, testurekin. "Udazkena gaiagatik ez balitz ez litzateke erakusketa homogenea izanen. Ikerketatik badu".

Asensiok Urbasko eta Altsasuko arbolak eta paisaien argazkiak erakutsiko ditu. Argazkiak hainbat materialetan inprimatu

ditu: txapa, txapa txuria, txapakumena, metakrilatoa eta ohiko papera. Argazkiaren tonuaren arabera material baten edo bestearen aldeko hautua egin du: "kolore biziak metakrilatoan eta txuriaren gainean, suabeagoak zilarrean. Ezberdina izateko eta berritze-ko egin du bestelako euskarrien aldeko hautua argazkilariaik.

+www.guaixe.eus

## Maletak geltokian dantzan

**Apirilaren 11n, larunbatean, 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean**

Maleta batean sar daitezke denboraren joana, bakardadea, harremanak, joandakoak, geratu direnak... Ugariak dira maletak geltokian. Anitzak, beraz, haien edukiak, zama. Aukeran dantza taldeak Miren Agur Meabe idazleari maletan inguruko idatzirekin bat sortzeko eskatu zion. Dantzariak poema eta testu sorta jaso zituzten bueltan. Haietan oinarrituta sortu dute *Geltokia* ikuskizuna. Obraren maletak, "norbanakoaren eta norberaren probabilitateak biltzen dituen metafora, kohesio-elementua dira guztiondako". +www.guaixe.eus

## bazterretik

### Aurkene Ormazabal

### Negu txurien loreak

New York, London, Milan eta Pariseko desfile handiak pasatu berri dira eta sei hilabetero gogotsu itxoi-tendut Josep Fonten bilduma ikusteko.

Josep Fontek, diseinatzaile askok bezala, arkitektura ikasi zuen. Baita patroigintza eta moda ere. 2012an, Jesus del Pozoren heriotza eta gero, Delpozo-ren zuzendari sortzailea izendatu zuten, etxearen kodeak berritzeko prest, freskotasun puntu bat, irudi gazteago bat eta nazioarteago bat emanez. Bere bildumetan ikusi dezakegu karaktere oniriko emakume garai-kide bat estilo berritzaile eta arki-

tekoniko batekin. Batzuetan fantasiaren lerroa gainditzen du eta beste munduetako piezak egitea lortzen ditu.

2015eko udazken/neguko bilduma berriz ere arrakasta bat izan da. Honetan Fontek Rhys Leeren tanta koloretsuak eta Andrey Remneven aztarnak nabarmentzen dira. Bi artista guztiz desberdinak, baina aldi berean kontraste politak egiten dituztenak.

Bolumen interesgarriekin jolastu du diseinatzaile katalanak, jantziak emakumearen gorputzetik ihes egitea lortzen baitu. Sorbaldak mugitzen diramahuka globo, borobil eta arinei esker.

Negu honetan diseinatzaileak kale-

akehun negutarretaz betenahi ditu, artile hotza, crepé-a, feltroa eta mufloiekin. Aurten, belusa agertzen da nobedade bezala hiru era desberdinetan: teknologikoena egunarentzat, trinkoa eta debore itxuran gauarentzat. Aipagarria da ere loreen erabilera, etxearen ezaugarrietako batean bihurtu dira pixkanaka eta oraingoan ere azaltzen dira. Telazko loreak dira eta eskuz eginak gainera, petaloz petalo jositakoak ehundura berriak sortuz. Rhys Leeren pintzelkadak bere mihiseak bustitzen ditu hautseztatutako tonuekin batera, klein urdin bat blush batekin. Joku honekin, diseinatzaileak marroi txokolate, berde, gorri eta beltza nudearekin



kontrastatzen ditu bildumari sentibiltate gehituz. Puntuak ere bere garrantzia dau-

ka bildumean bere alderik eleganteenean, mohair, merinoa eta alpaka zetarekin nahasten baitu.

# Okela sormen lantegia, beharrianetik sortua

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Unibertsitate amaiera amildegi bilakatu ohi da ikasle arruntarentzat. Urteak fakultateko berotasunean, klasekideen aldamenean egon eta gero, bakarrik, nora jo ez dakiela izaten da. Itsaso zabalean iparrorratzik gabe balegolez, ikasle graduatu berriak erabat galduta ikusten du bere burua lan munduaren ozeanoan. Antzeko zerbait gertatu zitzaion Irati Urrestarazu Zubizarreta altsasuarrari Arte Ederretako ikasketak burutu ostean. Alabaina, honek garbi zeukan artearen mundu “gehiegi indibidualizatuan” aurrera egiteko modu bakarra indarrak batzea zela. Horrela, Arte Ederren Fakultateetik irten dako beste hiru ikaslerekin batera bildu, eta euren alorraren inguruan ikuspuntu berdina zutela ikusita, Okela sormen lantegia sortu zuten joan zen urteko apirilean.

Okela Bilboko San Frantzisko auzoko 11. zenbakian, duela hogeit urte bertako harategia izandako eraikinean dago kokaturik. Eki-mena martxan jartzerakoan, laukoteak konponketa eta moldatze lanak egin zituen, espazio horri sormen lantegi baten itxura emateko. Haatik, eraikinaren identitate propioak hor zirauren. Izozkailu handiak, paretetako kolore txurria, haragia mozteko lanabesak, espazioaren egitura bera... Giroak, dudarik gabe, harategi batena izaten jarraitzen zuen. Horrela, izena erabaki nahian ordu luzeak igaro ostean, berau eraikinak duen berezko izaerarekin lotzea deliberratu zuten.

## Artisten Meeting Pointak

Hasiara batean lau artistek zituzten asmoen arabera, hura euren lan pertsonalak egiteko tailerra izan behar zen. Izan ere, ez zituzten espazioaren ezaugarriak eza-gutzen.

Alabaina, harategi izandako eraikin haren benetako dimentsioak ikustean, proiektu zabala go bat martxan jartzearen abagunea ez zuten alferrrik galdu nahi izan. “Lekua oso aproposa zen dimentsio kolektiboa izango zuen ekimen bat abian jartzeko. Erronka handia zen, baina horretarako indarrak eta gogoak sobera genituen”, dio Urrestarazuk. Horrela, bada, bi-hiru hilean behin Artisten Meeting Point izeneko jardunaldiak antolatzen hasi ziren, Euskal Herri osoko artistak bildu eta ideiak amankomunean jartzeko helburuarekin.

Artisten topaketa hauetan gai orokor bat hautatzen da mintzagai gisa -orain artekoak lurralde-tasuna, gorputza, politika, prozesuak eta tradizioa izan dira-, eta bertara deialdi irekien bidez aukeraturiko hiru artistak bere lanean jardunaldi bakoitzeko mintzagaia nola jorratu duten azaltzen



dute 20 minutuko tartean. “Jardunaldi hauetara ibilbide desberdineko artistak deitzen saiatzen gara. Hori eginda, artearen munduan hasiberri eta artista kontsagratuen artean dagoen transmisio falta nolabait apurtu egiten dugu”. Hitzaldiaren ostean debate bat egiten da bertan biltzen diren guztien artean, eta horri esker, Urrestarazuren arabera, artista pentsalari gisa irudikatzen da. “Artisten Meeting Point hauek Okela eztabaidagune bihurtzen dute, eta hori oso aberasgarria da guretzat”.

## Euskal Herriko artista plastikoen sarea ehuntzen

Gauzak horrela, hiru hilean behin ospatzen diren topaketa hauen emaitza gisa Euskal Herriko artista plastikoen sarea ehundu dute, indibidualizazioarekin hautsi eta artistei bisibilizazioa eskaintzeko helburua duena. Tresna honi esker, artista bakoitzaren lan indibidualak ikusgarri egiten dira, eta, horretaz landa, artistak hainbat irizpideren arabera (diziplina, teknika eta lurralde historikoa) lotzen dira, “etorkizuneko oso aberasgarriak izan daitezkeen aliantzak sortuz”. Artisten amaraun hau iragan urteko abenduan jarri zen martxan, eta dagoeneko 76 artistaren fitxak daude ikusgai. Bertan ager-

## Okelatar-en bila

Babes ekonomikoa lortu asmoz, Egin zaituzte okelatar kide kanpaina jarri dute martxan. Kide egiten direnek gutxienez 30 euro ordaindu beharko dituzte urtean, Urrestarazuren arabera, proiektuarentzako funtsezkoa den babes eta laguntza emanez. Altsasuarrak dioenez, Okela bezalako proiektu bat aurrera eramateak diru behar handia sortzen du, debalde lan egiteaz landa, Meeting Pointetara doazen artistei ordaindu beharra baitago. Horrela, dirua lortu eta diru-laguntza eta erakundeekiko menpekotasunik ez izateko okelatar-ak bilatzea erabaki dute. “Orain arte jendeak emandako erantzunarekin oso pozik gaudu. Oraindik babes handiagoa behar dugu lasai aritu izateko, baina oraingoz ezin gaitzeko kexatu. Badakigu hau maratoi bat dela, eta ez esprint bat”, azpimarratzen du Urrestarazuk.

tu ahal izateko hiru hilabete behin zabaltzen dituzten deialdi-tara edonor aurkez daiteke, eta mapan sartzeko eskakizun bakarra norberak bere datuak bidaltzea da (sarearen kide izateko beste modua Meetin Pointetan

## Feminismoa eta euskara ardatz

Okelako laukoteak sorturiko Euskal Herriko artista plastiko eta bisualen sarea ez dago guztiz osaturik, esan bezala, oraindik artista asko falta baitira amaraun horretako parte izateko. Edonola ere, orain arte bildutako datuek aukera ematen dute dagoeneko alorraren diagnosi bat egiteko. Urrestarazuren esanetan, mapa honetan dauden artista gehienak gazteak dira, eta hori, besteren artean, gazte jendeak kolektibizatzeko behar handiagoa duelako gertatzen da. “Jada ibilbide bat duen jendeak ez du halako interesik, eta zenbaitetan zuk ibili behar duzu haien atzetik. Gazte jendearentzat, ordea, sekulako abagunea da mapa honetan agertzea, eza-gutzer emateko tresna oso eraginkor bat baita”. Bestetik, artista altsasuarrak mapa honetan eta, oro har, Okela proiektuan batik bat emakumeak dabilzala azpimarratzen du. Bere ustez, gazteek kolektibizatzeko behar handia duten bezala, emakumei ere antzeko zerbait gertatzen zaie, artean, gizarteko beste zenbait esparrutan bezala, gizonezkoek erraztasun handiagoak baitituzte. “Zentzu horretan, Okela espazio feminista bat dela nabarmendu behar da”.

Feminismoa bezala, euskara ere proiektu honen ardatz nagusietako bat da. Lau artista gazteek arazoak izan dituzte artearen munduan euskaraz jarduteko, eta horri aurre egin nahian, euskara bera hautatu dute Okelaren motore gisa. “Kontuan hartzen dugu gure lan esparruan euskara ez dakien jende asko dagoela, baina guk hasieratik argi izan dugu gure espazioa euskalduna izanen zela. Bestelako hizkuntzak onartzen ditugu, noski, baina beti ere euskara hizkuntza nagusitzat hartuz”. Gauzak horrela, hilaren 17an San Frantzisko kaleko sormen lantegiak urtebete beteko du. Urtebete, hasieran beharrian indibidualak eta azkenean beharrian kolektiboak asebetetzeko sortutako ekimenak lehenengo pausoak eman zituenetik. Begirada atzera botata, Urrestarazuk oso positiboki baloratzen du azkeneko urte honetan gertatu zaien guztia: “Horrelako proiektu bat abiatzean ikasten eta jasotzen dena asko da. Jendearen hauspoa hasiera hasieratik sentitu dugu, eta horrek sekulako indarra eman digu aurrera egiteko. Etorkizuneko eskatzen dugun gauza bakarra orain arteko lerro beretik jarraitzea da”.



parte hartu eta norberaren lana azaltzen duen bideo bat entregatzea da).

## Horizontala eta interaktiboa

Artisten sareak osatzen duen maparen ezaugarriak dagokienez, horizontala eta interaktiboa dela nabarmendu behar da. Horizontala, artista guztiak maila berean agertzen direlako (ematen zaion hasiberri bati edo ibilbide luzea duen artista bati), eta interaktiboa, internet euskarri gisa hartzeak dinamiktasuna eta informazioa kendu eta

sartzeko aukera ematen duelako. Gainera, originaltasun handikoa dela esan daiteke, sare hau eratzerakoan ez baitute non begiratu izan. Antzeko proiektuak bilatu dituzte, baina ez dituzte aurkitu. “Duela zazpi bat urte Jose Luis Morazak artisten mapa bat egin zuen, baina gurearen oso bestelakoa da. Alde batetik, artistak hierarkikoki agertzen dira, eta agertzen direnak soilik ospe handiko artistak dira. Bestetik, paperean dago eginda, beraz, ez dauka gureak daukan interaktibotasunik”.

## G

asteko >> : eguraldia

osteguna	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena
euria: 4%	euria: 7%	euria: 32%	euria: 7%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 10%
Min: 2 Max: 15	Min: 3 Max: 17	Min: 5 Max: 9	Min: 2 Max: 13	Min: 1 Max: 16	Min: 4 Max: 17	Min: 6 Max: 16

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	.....	.....	.....
Etxarri A.	.....	.....	.....
Altsasu	.....	.....	.....
Aralar	.....	.....	.....
Urbasa	.....	.....	.....

: ilargiaren aldia >>

	ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
	4	12	18	26

## EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Marsuko

## bazkide sarituak

1. **Eugenia Goñi Araña**  
(Arbizu)
2. **Biltoki Gazte Elkarte**  
(Lakuntza)
3. **Jose Luis Izagirre Uria**  
(Altsasu)
4. **Blanca Ilundain Etxeberri**  
(Irurtzun)

MARSUKO SARIAK:

1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera. Gaztezero aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Irrien lagunak aldizkaria.

2.3.4.SARIAK: Gaztezero aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturaleren lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Irrien lagunak aldizkaria.


# >> 11

## galdera

Xabier Senar

Ingeniari tekniko elektrikoa

Testua: Larraitz Amadoz Lazkano



Elkarrizketa osorik guaix.eus web orrian

# ikaslearen

## agendak

### & irakaslearen koadernoak

GURE BALIO ERANTSIK:

Agenda hezigarria:

Esaera zahar, ilustrazio eta eduki didaktikoak

Orri-markatzailea | Ikastetxeari aholkularitza

diseinua & inprimatzea

948 562 107 argi@guaixe.net

**1. Zer ikasketa egin dituzu?**  
Altsasun batxilergoko ikasketak bukatu nituen, eta 2008an Nafarroako Unibertsitate Publikoan Ingeniaritza tekniko elektrikoa ikasten hasi nintzen. Hasieran, ez nekien aztatuko nuen ala ez aukeratutakoarekin, baina oso gustora nago egin dudana erekin eta oraingoz primeran. Karrera bukatu genuenean, proiektua egiteko ordua iritsi zen eta guk beste zerbaiteko egiteko gogoia genuen.

**2. Proiektu ezberdina egitea erabaki zenuen?**  
Normalean ikasleek nabe industrialak hautatzen dituzte proiektua egiteko, gu, berriz, energia berriztagarrien munduan sartu ginen.

**3. Ingeniaritza ikasketak bukatu eta master bat egin zenuen?**  
Unibertsitateko ikasketak bukatuta, beste zeozer egitea pentsatu nuen. 2012an energia berriztagarrien inguruko masterra hasi nuen eta joan zen urtean bukatu nuen.

**4. Energia berriztagarriak etorkizuneko oinarrietako bat izanen dira?**  
Energia berriztagarrien arloa laguntzen eta lantzen hasi behar da. Geroz eta jende gehiago dago munduan eta hortaz, energi gehiago kontsumitzen da. Energia azken finean, modu anitzetakoak izan daitezke, nuklearra adibidez. Energia nuklearrak badakigu zer dakarren, hondakin kaltegarriak ditu, eta inguruan, Burgosen kasu, adibidegarbia dugu, edota Frantzian. Kalte horiek kontutan hartuta, beste energia batzuen presentzia dagoela jakin behar da eta horiek

bultzatzen saiatu behar gara, posible delako.

**5. Nolako izan zen haize errota egitearen prozesua?**  
Nire laguna Martin Garciarekin hasi nintzen. Gure kasuan, lanean egonda, diru pixka batekin, proiektua ateratzea errazagoa izan zaigu. Arlo mekanikoarekin hasi ginen: hegalak, sorgailua, egitura; eta gero, bihurtutako sartu genuen. Azkenik, energia guztia gordetzen duen bateria, etxean energia aurrezteko. Nire helburu nagusia etxeko faktura aurreztekoa da. Diseinua guk egin genuen, baina gero hainbat pieza tratatzeko, Sakanako lantegietara jo behar izan genuen.

**6. Asko ikasiko zenuten horrelako proiektu batekin, ezta?**  
Ba bai, asko eta asko. Unibertsitatean teoria asko ikasten da, baina praktika gutxi. Hiru urtetan ikasitako materiaren % 80 proiektu hau egiten landu genuen, beraz, halabeharrez ikasten da. Pieza batzuk guztiz desmontatu genituen haize errota gure modura eraiki ahal izateko.

**7. Nola funtzionatzen du haize errota?**  
Haize errota batek behar duen ezaugarri garrantzitsua haize iraunkorra eta indartsua izatea da. Hori non lortu daiteke? Herrian normalean ez da lortzen, haize boladak ibiltzen direlako eta hori ez da iraunkorra. Mendian, munita batean leku egokiak aurkitu ditzakegu, hesi ala langarik ez dagoen leku batean. Etxean artean, batzuetan haize gehiegi ala gutxiegi izan dezakegu eta hori ez

da aproposa. Haize desegonkorak kaltetu egiten du errota, hortaz, haizearen iraunkortasuna da ezaugarri garrantzitsua. Funtzionamenduari dagokionez, haizeak hegalak mugitzen ditu, horrela, indar horrek sorgailua mugitu egiten du eta energia hori baterietan gorde egiten da.

**8. Haize errota bukatu duzu baina etxean jartzerik ez?**  
Errota bukatu nuenean udaletxera joan nintzen baimena eskatzera. Idatzi bat egin behar izan nuen Nafarroako Diputazioarekin harremanetan jartzeko. Nafarroako instituzioek ingurumen ikerketa bat eskatu zidaten. Ikerketa horrek 6.000 euroko gastua dauka eta hori jakinda hor gelditu zen gauza. Oraintxe trastelekuan dago hautsa hartzen.

**9. Asteburuan energia foro bat egon da Altsasun, zer egin da bertan?**  
Hainbat arlo landu ziren energi berriztagarrien foroan: biomasa, etxeak isolatzeko materialak...

**10. Zuk ere hitzaldi bat eman zenuen, ezta?**  
Bai, nik haize errota egiterako orduan aurrera eramandako prozesua azaldu nuen. Zerpauzo jarraitu genituen, nola egin genuen, zergatik hartu genituen momentuko erabakiak.

**11. Horrelako foro batean parte hartzen zenuen lehen aldi zen?**  
Bai. Oso ongi sentitu nintzen, egia esan. Honetan interesa duen jendearekin elkartzeko aukera izan nuen eta ekarpen handia da hori, oso esperientzia ona.